

...eta Kitto!

2019-IX-20

1112 zkia.



Zerbetan EUSKERAREKIN GOZATZEKO ikasturte berriaren aurrean



Administrador
Fincas
Colegiado



ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea




KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurilaritza
 - Udala



LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enerreklamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTEK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09:14:00 eta 15:30-19:30



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t** **Eta twitterren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitetzeke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOKAU.- Kopaua. Gaztelerazko **'bocado'**. "Goizerdixan, edarto sartzen da mokautxo bat".

MOKO.- Sudurrean eratzen den likidua, muskira. "Han zeguan baztar batian adurra eta mokua darixola".

astean esanak

"Tradizioa? Erlijioa? Batzuetan, ez bata, ez bestea: errutina ez besterik. Tradizioa aitzakia da politikariaren parte hartzea justifikatzeko. Arazo politikoa dute; oraindik ere ez dute ulertzen lege zibilak eta konstituzioa haien sinesmen pertsonalen gainetik daudela, tradizio batean oinarrituak badira ere. Politikariak gizarteko aniztasunaz irri egiten dute, herritarren ordezkari direlakoan gainera. Erlijioa, identitate elementu gisa, oso arrisksua da, elkarbizitazarako banatu egiten gaitu-eta"

(VICTOR MORENO, IDAZLEA)

"Erdaldunak erdaraz maitatzeko aukera guztiak ditu hemen, guk euskaldunok ez dugun moduan. Bikotekide biak euskaldunak izanda ere, hain eskura dugu erdara, non batzuetan euskaldunok erdara gehiago ikasten dugun ohean euskara baino. Larrutan egin? Hobe *follatu*. Kontua da harreman afektibo ez-sexualen arloan ere nagusitu zaigula erdara. Maitea? Bihotza? Laztana? Aitona-amonon hitzak dira horiek. *Cariño* da oraingo berba -*kariño*, barkatu-. *Kari*. *Txurri*. Egia esan, ez dut halako elkarrizketa bat irudikatu nahi, hamasei edo hogeit urteko euskaldunen artean: "Lasai, *kariño*, gero *follauko* dogu"

(JOSE MARI PASTOR, ZUTABEGILEA)

"Musika kontsumitzeko moduak erabat aldatu dira. Oro har, uste dut egiten den kontsumoa masiboa eta nahiko inkontzientea dela. Diskoa erosi eta goitik behera entzuten zen lehen, buruz ikasi arte. Gaur egun, mende oso batean entzuteko adina musika gordetzen dugu disko gogorretan; ez dugu denborarik jaitziko musika guztia entzuteko. Musika debalututa dago, eta musika lokalak sufritzen ditu gehien horren ondorioak. Rock-a ere modaz pasatzen ari da eta aspaldi da AEBetan gehien entzundako diskoen artean rock estilorik ez dagoela. Gaur egun tangoak eta pasodobleak duten lekua hartuko du rock-ak laster"

(JOSU ZABALA, MUSIKARIA)

Esperientzia Eskolako matrikulaziñua zabalik dago

Debabarreneko Esperientzia Eskolakuak 2019-2020 ikasturterako matrikulaziñua zabalik dake, urriaren 17ra arte. 55 urtetik gorakuentako klasiak urriaren 22xan hasi eta datorren urteko maiatzaren 22xan amaittuko dira eta Untzagako jubilau etxian eta Armerixa Eskolan emongo dittue, astian hiru egunetan: martitzen eta eguaztenetan, 09:30xetatik 12:30xetara eta egunetan 10:00etatik 12:00xetara. Ikastarua amaitzen daben guztieri diploma emongo detsa kurtso amaieran. Informaziño gehixago eskatzeko zein matrikula egitteko 695 78 89 36 (Eva) telefono zenbakira deittu leike, esperientziaeskola@adindu.com helbidera idatzi edo www.ikasten.info web orrixan begiratu. Horrez gain, Debabarreneko udaletxe guztietan dago izena emoteko aukeria.




Ion Fiz diseñadoriaren kolekziñua saltzeko "pop-up"

Gaurtik hasitta eta domekara bittartian, Ion Fiz diseñadoriaren 2019ko andra-gizonen kolekziñoko erropak prezio berezixan saltzen egongo dira Toribio Etxebarria kaleko 3. zenbakixan, asmo horrekin antolatu daben "Pop-up" dalakuan. Goizeko 11:00etatik 21:00xetara zaba-

lik egongo dan dendan Fizek sortutako diseñuak deskontu haundixarekin (%70 artekuak) erosteko aukeria egongo da. Ekimenaren antolatzailliak aurreratu dabenez, hurrengo asteburuan errepikatzeko asmu dake eta seguruenik egunen batian Fiz bera bertan egongo da.

Untzagako kioskorako eskintzak astelehenera arte jasoko dittue

Untzagako kioskuaren erabilleria lehiaketa publikora etara dau Eibarko Udalak. Interesa dakan edozeiñek izango dau bere eskintza aurkezteko aukeria, eskatzen daben dokumentaziñuarekin batera. Horretarako epia irailaren 23ra arte (astelehenera arte) egongo da zabalik. Eskaeriak eta gaiñontzeko agirixak nun eta zelan aurkeztu bihar diran, bestelako azalpen guztiekin batera, Udalaren web orrixan (www.eibar.eus) dagoz eskuragarri.



**JUAN LUIS
Ulazia Landa**
8. urteurrena (2011-IX-25)

**"Gure artean ez bazaude ere,
GUREKIN zaitugu BETI"**

ETXEKOAK





Gaur arratsaldian hasiko dira Legarreko jaixak

Tarte degustaziño paretik gaur 19:00etan abiatuko dan kalejirekin hasiko dira Legarre auzoko jaixak. Ordu erdi geruago, 19:30xetan, famelixa eta umiendako preparau daben "Legarre Raid" jolasa hasiko da eta 20:00etan, barriz, patata tortilla txapelketia. Kalian afaltzera geratu nahi daben umiendako, barriz, makarronada antolatu dabe. Horrekin batera, Kaxa alkartiaren eskutik gaztieldako mugimendu eta sormena egongo dira eta, horren ostian, 23:00etatik aurrera kontzertua emongo dabe "Black Sapatu"

(Black Sabbath) taldekuak. Bixarko jarduerak eguardixan hasiko dira: kalejira, txosnan hasitta (12:00); pintxo-potia Tarten (12:30); Legarreko IV. Kronoeskillaria (13:00); pintxo-potia txosnan (13:30); grafiti erakustaldixa (13:30); kronoeskillararen sari-banaketia (14:25); bazkarixa (14:30); umiendako ikuskizuna Antxo eta Pantxarekin (16:00); musikia, DJ Arnorekin (17:00); txokolatadia (18:00); erromerixia, MP5 taldiarekin (20:00); eta, amaitzeko, Puro Chile eta A Tuti Plain taldien kontzertua, 22:30xetatik aurrera.

autuan

1949-XAN JAIXOTAKUAK

Urriaren 19xan ospatuko dabe euren jaixa aurten 70 betetzen dittuenak. Koskor tabernan alkartuko dira, 13:00ian, eta hamarretakua hartu eta, jarraixan, talde-argazkixa egingo dabe Untzagan. Bazkarixa, barriz, Untzaga Plaza hotelian izango da. Juan nahi dabenak 65 euro sartu bihar dittue Sabadell bankuko ES27 0081 4314 9000 0109 9520 kontu zenbakixan. Argibide gehixagorako 635717400 telefonora deittu leike.



ALDERDI EGUNERAKO AUTOBUSA

Iraillaren 29xan Forondan ospatuko dan Alderdi Egunerako jua-eterriko autobusa jarriko dabe Eibarko EAJ-PNVkuak. Aurten ere duan izango da zerbitzua eta autobusa 09:35etan urtengo da Urkizutik (09:40etan Ego-Gaiñetik). Buelta, barriz, 18:30xetan izango da. Izena hillaren 25era arte eman leike, eajpnveibar@gmail.com helbidera idatzita edo Batzokira deittuta (943120616). Lekuak mugatuak dira.

Eko 2019

DEBABARRENEKO VIII. ASTE EKOLOGIKOA

Eibarko UNTZAGA Plazan



GUNEA

SHOW-COOKING ETA JOLASAK

irailak 19: 16:00-20:00
irailak 20: 16:00-20:00
irailak 21: 10:00-14:00
irailak 22: 10:00-14:00

AZOKA

AZOKA EKOLOGIKOA

irailak 22, domeka
10:00etatik 14:00ak arte
Bertoko produktu ekologikoen dastaketa, jolasak, erakusketa, informzio postuak, atsedeen gunea, musika eta jai giroa, zozketak...

IRTEERAK

BASERRIRA BISITAK

irailak 24, martitzena
Txillarre (Elgoibar) 18:00
BARAZAINTZA EKOLOGIKOA
irailak 26, eguena
Iturrua Goikoa (Eibar) 18:00
ABELTZAINTZA EKOLOGIKOA

Doan. Izen-ematea:
943 76 14 47
(Biolur)



11/13 sumarioko epaiketetan alde bixen arteko akordixua lortu da

Hasi eta berehala amaittu zan 11/13 sumarioko epaiketia astelehen goizian, Madrilgo Auzitegi Nazionalian. Auzipe-tuak banan-banan entzun zittuen euren kontrako akusaziñuak eta danak onartu zittuen esandakuak. Gauzak holan, fiskalak eskaera barrixa egin eban: Arantza Zulueta eta Jon Enparantzari erakunde terroristako kide izatia egotzi detse eta beste 45 auzipetuari, tartian Ainhoa Baglietto eibartarrari, parte hartze aktibua. 47 auzipe-tuak akusaziñuak onartu eta alde bixak akordio batera aillegau dira. Holan, 47 auzipetueta 45 ez dira kartzelara juango, urte bat eta sei hillebeteko eta bi urtera arteko zigorra ezarri detse eta.

Zulutari hiru urte eta sei hillebeteko zigorra eta Enparantzari bi urte eta zazpi hillebetekoa ezarri detse. Halanda be, aurretik behin-behiñian bixak bete dabena-gaittik, bost hillebete egin biharko dittue kartzelan.



Epaiketarako bidian Lopidanan egindako famelixa-argazkixa.

Akusatuak auzitegitik urten eta jarraixan egin eban berba Amaia Izko abokatu eta auzipetuak: "Sarrittan salatu dogu epaiketa honetara baldintzatuta gatozela, Auzitegi Nazionala ez baita ohiko epaitegi bat, eta horrek ahalbidetu dabelako gure kontrako zi-

gor eskaerak izugarrixak izatia. Horrek pentsarazi desku igual zigor horrek egitan bete biharrekuak billakatu leikiazela eta beldur horrek bultzatu gaittu tratua onartzera, nahiz eta gure hasierako helburua danok libre urtetzia izan. Erabagi kolektibua izan da".



Eibarko neska* gaztiak Lizarrako topaketara juango dira

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak egingo dira Lizarran urriaren 4an eta 5ian eta hantxe izango dira Eibarko neska* gaztiak be, aste honetan bertan aditzera emon dabenez. Euren berbetan, "Euskal Herri maillan mugimendu feministak heldu detsan erronkari heldu detsagu geuk be eta urrian egingo dittugun 'Egin dezagun topa' topaketetan parte hartuko dogu. Gure artian saretu eta parte-hartze prozesu bat burutu genduan Eibarren, Euskal Herriko eta Eibarko mugimendu

feministaren inguruko diagnostikua egin genduan, gazte perspektibatik analizauta. Horren ostian, autodefentsa feministaren inguruko dinamika bat be egin genduan eta, horrekin batera, Arrateko jaiak aprobetxauta, neska* gaztiak topa egin eta flash-moba be burutu genduan". Urriko topaketarako prepatzen juateko, bestalde, datorren eguenian eskualde mailako pintxo-pote girotua egingo dabe Eibarren, "izen-emotia indartzeko eta oin arteko prozesuarekin amaitzeko".

Bixar hasiko da neguko ordutegixa oiñezkuendako gunietan

Asteburu honetan ekingo jako neguko ordutegixari herriko erdialdeko kalietan daguzen oiñezkuendako gunietan: Julian Etxebarria eta Zuloagatarren kaliak bixar 20:00etatik aurrera oiñezkuendako bakarrik izango dira eta trafikarendako itxitta segiduko dabe domeka gaberdira arte. Eta Toribio Etxebarria, Fermin Calbeton eta Untzaga, barriz, oiñ arteko martxan, bixar 15:00etatik domeka gaberdira arte izango dira peatonalak.



WhatsApp zabaldu dabe Andretxeakuak

Andretxeak WhatsApp zerbitzua ipiñi dau martxan, 688 853 440 zenbakixan. Holan, nahi dabena horren bittartez jaso ahal izango dau antolatzen dittuen ikastaro, taillar eta bestelako jardueren gaiñeko informaziñua. Bestela be, Andretxea-Berdintasun Zerbitzuak oin arteko moduan internet bidez emongo dau antolatzen dittuen ekitaldixen barri, www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea helbidian, baita sare sozialetan be.



Kofradixa Egunak eta Arrate izenekuen ospakizunak ederto girotu eben domekia

Arrateko Amaren eguna ospatu eta gero, aurreko asteburuan atzera be jaixa izan zan nagusi Arraten, domekan Baserrittar Jubilau eta Kofradixa Egunaren harira antolatu zttuen jarduereri esker. Urtero lez, goizian egin zan **Simon Adazabal XXIV**. Antxixiketaldixa eta, Arrateko santutegixan, barriz, 11:00etan hasi zan bertolarixak lagundutako **meza nagusixa**. Hori amaittu eta jarraixan, Arrateko Amaren irudixa **prozesiñuan** etara eben Kofradixako kidiak, Usartza Txistulari Taldekuak lagunduta eta eguardixan hasi zan Udalak urtero antolatzen daben

paella-lehiaketia. Aurten beste batzuetan baiño parte-hartzaille gitxiago egon ziran, baiña, halanda be, animau ziran bikotiak primerako giruan preparamau zittuen ondoren jan zittuen paella ederrak. Eta, egitaraua agurtzeko, arratsaldian **idi-probak** hartu zittuan probalekuak. Ordura arte eguraldixa lagun izan arren, arratsaldeko lehen orduan eurixa hasi zan eta, hortaz, lehen idi-pariak euripian egin bihar izan eban proba. Udalak emoten daben Arrateko Amaren Sarixa arratsaldeko hirugarren idi-pariak, Galder Bolañosenak (Oliden) eskuratu eban, ordu erdiko tartian 54



plaza egin eta gero. Bestalde, aurten 23. ediziñua bete daben **Arrate izenekuen** jaixak Kofradixa Egunarekin bat egin dau eta, hori ospatzeko alkartu ziran andrak urteroko planari segidu zetsen oinguan be: batzuk oiñez igo ziran Arrateraiño, Ama Birjiñaren pausuen bide

zaharretik eta, danak Arraten alkartu eta gero, mezia, bazkaria, jolasak eta bestelakuak tartian, egun zoragarrixa pasau eben. Egunekoko argazkixekin osatu dogun bilduma ikusteko, gure **web orrixan** sartu zeinkie (etakitto.eus/mediateka/argazki-bilduma).



Paella-lehiaketa.



Idi-probak.

2019/20 EUSKARA IKASTAROAK
matrikula
 irailaren 27^{ra} arte
zabalik **aek**

AURREZ AURREKO ESKOLAK
 (AUTOIKASKUNTZA ETA ONLINE BIDEZ ERE IKASTEKO AUKERA)

- A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak
- C2 maila online
- Azterketak prestatzeko ikastaroak
- Hizkuntza eskakizunak: HABE, IVAP, Irale, Osakidetza
- MINTZA TALDEAK: Titulua izan arren, euskara maila hobetu nahi dutenentzat pentsatutako taldeak

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK:

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus *Udalaren laguntzaz*
Sostoa 1, 1. solairua *BEKA SISTEMA*
 Tfnoa: **943 201 379**

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

AECC Gipuzkoa Minbiziaren Aurkako Elkartek erretzeari lagatzeko laguntza-terapiarako taldea antolatatu du Eibarren. Saioak doakoak izango dira eta tabakismoan aditua den Miriam Marquez psikologoak gidatuko ditu. Iaz Gipuzkoan terapia egin zuten pazienteen %62k amaitu zuten prozesua arrakastaz. Taldean parte hartzeko interesa dutenek informazioa eska dezakete 943 20 24 94 zenbakian, edo Eibarko Ardantza kaleko 11. zenbakian.



Miriam Marquez psikologoak gidatzen ditu terapiak Ardantza kalean.

MIRIAM MARQUEZ:

“Erretzeari uztea dolu-prozesu bat da eta prest egon behar dugu tabakoari agur esateko”

- Zeinentzako dira talde hauek eta noiz abiatuko dira?

Tabakoa laga nahi duten erretzaileen-entzako dira. Guztiz doakoak dira eta ez da erakundearen bazkide izan beharrik. Terapiak AECC Gipuzkoak Eibarren duen egoitzan egiten dira (Ardantza kalean) astean behin, eta baita inguruko enpresetan ere, hala eskatuz gero. Taldeak irailaren amaieran abiatuko dira eta oraindik badago izena emateko aukera. Taldea osatzean erabakiko dira egunak eta orduak. Terapiak banakakoak izan daitezkeen arren, nik taldeak gomendatzen ditut beti, euren artean aholkuak ematen dituztelako, bizipenak partekatzen direlako...

- Kanpoko laguntzak emaitza onak ematen ditu?

Arrakasta pertsona bakoitzaren arabera da, baina frogatuta dago kanpoko laguntza profesionalarekin helburua lortzeko aukerak handitu egiten direla. Terapia psikologikoaz gain, nikotinen menpekotasunari aurre egiteko osagai nikotinkoei buruzko aholkularitza eskaintzen dugu. Lagungarriak besterik ez dira. Azken lana pertsonarena da. Erretzera eramaten gaituzten faktore psikologikoak ulertzea eta zein motatako erretzaileak garen jakitea

oso inportantea da (haserre nagoenean erretzen dut, kuadrillan pote batzuk hartzen ditudanean erretzen dut...), bestela estrategiarik gabe aurkitzen gara.

- Zeren arabera da terapiaren arrakasta?

Pertsonaren momentuaren arabera da. Tabakoa lagatzeak oso gauza onak dakartzkigu (osasuna, dirua aurrezte...), baina, aldi berean, agur esan behar diogu lagun horri, eta prest egon behar dugu horretarako. Dolu-prozesu bat da, azken finean. Tabakoa minbizi mota askorekin lotuta dago eta, horrexegatik, gure elkartetik saikera egin nahi duten guztiei animatzen diegu etortzeko. Hori bai, argi eduki behar du te konpromiso bat hartu behar dela terapiarekin eta taldearekin.

- Zer eskaintzen diete terapia hauek erretzaileei?

Terapia bion arteko harremana da: psikologoa moduan, terapiarekiko eta taldearekiko konpromisoa eskatzen dut eta estrategiak eskaintzen ditut. Erretzaile bakoitzarekin lehenengo aurretiazko elkarrizketa bat egiten da, eta bertan elkarrekin baloratzen dugu erretzeari uzteko modu onena eta asteko saio kopurua; izan ere, pertsona bakoitzaren egoera eta behar berezien

arabera aldatu egiten da. Saio horietan pazientearen mendekotasun fisiko eta psikologikoari arreta berezia ematen zaio, eta erretzeko ohitura sustatzen duten estimuluak kontrolari aurre egiteko estrategiak lantzen ditugu.

- Badago erretzeari lagatzeko trukerik?

Ez dago barita magikorik, estrategia multzo bat dago. Borondatea izan behar da, eta momentua aurkitzea oso inportantea da. Motibazioak topatzeak ere asko laguntzen du. Badakigu errekaidak edo berrizkaturak bost alditan izaten direla batzabeste, baina prozesuaren parte dira eta hori argi eduki behar dugu.

- Zer da 'RespirApp'?

AECC Gipuzkoako Minbiziaren aurkako Elkartek mugikorretarako aplikazioaren bertsio eguneratu berria atera du, 'RespirApp' izenekoa, oraindik erretzen duten herritarrei tabakoa uzten laguntzeko. AECCren Minbiziaren Behatokiaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den herritarren % 78 ez-erretzailea edo erretzaile ohia da, baina oraindik ere % 22k erretzen jarraitzen dute. Datu horien arabera, agerikoa da azken bost urteotan erretzaileen beherazko joera, 2009. urtean erretzaileen kopurua % 34 ingurukoa baitzen.

Domeka goizean, 10:00etatik 14:00etara Untzagan zabalduko duten Debabarreneko Azoka Ekologikoarekin hasiko da Debabarreneko VIII. Aste Ekologikoa. Udalak, Debemen eta Biolur elkarteekin batera antolatu duen ekimenak gure inguruko baserrietan ekoiztutako produktu ugari gerturatuko dizkigu, azokan parte hartuko duten 30 bat saltokietan.

Untzagak Debabarreneko Azoka Ekologikoa hartuko du etzi

Eibar, Elgoibar, Itziar, Murtriku, Aretxabaleta, Zumaia, Aia, Abadiño, Arrasate, Urretxu, Antzuola, Zestoia, Hernani, Olaberria, Tolosa, Azkoitia, Mañaria, Zarautz, Beriain, Leintz Gatzaga, Falces eta Zamorako ekoizleak elkartuko dira asteburu honetan egingo den azokan. Salduko dituzten produktuen artean, besteak beste, gazta, ogia, barazkiak, arropak, arrautza ekologikoak, mermeladak, eztiak, lekaleak, kontserbak, sagardoa, olioak, berakatzak, pasta eta algak aipatu daitezke. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, azokan salgai ipiniko dituzten produktu guztiak modu ekologikoan eta artisau eran hazi eta ekoiztutakoak izango dira, hau da, *“natura, animaliak eta gizakiak errespetatuta, horien osasunari kalte egin barik”*.

Azokari esker ekoizleek euren produktuak zuzenean kontsumitzaileei saltzeko aukera

izango dute eta erosleek, berriz, produktuen inguruko informazioa ekoizleen ahotik jasoko



Aurreko ikasturtean DBHko ikasleekin baserrietara bisitak egin dituzte.

tzeko modua. Azokaren inguruan, bestalde, hainbat jarduera osagarri prestatu dituzte: bertoko produktu ekologikoen dastaketa, jolasak, informazio postuak, atsedeen gunea, musika eta jai giroa, zozketak...

Baserrietara bisitak doan

Horrekin batera, eta aurreko urteetan egindakoari jarraituz, Eibar eta inguruko baserriak



Ekoizleen eta erosleen arteko hartu-eman zuzena eskaintzen du azokak.

ezagutzera joan nahi dutenentzat doako bisita gidatuak antolatu dituzte. Lehen irteera

tutik ikusi eta horri buruzko azalpenak jasotzera. Batean zein bestean parte hartu nahi izanez gero aurretik izena eman beharra dago, Biolur elkartearen 943761447 telefono zenbakira deituta.

Informazio-gunea

Aurtengo egitaraua prestatzeko orduan, berritasun nagusia atzoz geroztik Untzagan dagoen informazio-guneak osatzen du. Edukiontzia itxurako gunek horrekin herritarrei produkzio ekologikoari buruzko ikuspegi globala gerturatu nahi diete. Asmo horrekin, inguruan hainbat kartel egongo dira, gaiari buruzko informazioarekin. Eta barruan, berriz, ekoizpen ekologikoaren inguruko show-cookinga, dastaketa eta jolasak egingo dituzte. Gaur 16:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta bihar eta etzi, berriz, 10:00etatik 14:00etara.



JOSE BILBAO BILBAO

2019ko irailaren 16an hil zen

“EZ AGURRIK, EZ ADIORIK, GERO ARTE BAZIK. GURE BIHOTZETAN BETI MAITE IZANGO ZAITUQU”

**Familiaren izenean,
ESKERRIK BEROENA gure
nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.**



Mugikortasunaren Europako Astean murgilduta daude eta gai honen inguruan hainbat ekintza egin dira herrian. Bihar, adibidez, bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako objektuen salerosketa-azoka egingo da Untzagan, 10:00etatik 14:00etara, eta bizikletak konpontzeko tailerra egongo da goiz osoan. Bizikletak ondo ezagutzen dituen Iñaki Aldai da, orain dela 15 urtetik hona bizikleta erabiltzen duelako garraio moduan.

IÑAKI ALDAI:

“Bizikleta garraio moduan erabili nahi badugu, bidegorriak behar ditugu”

- Noiztik erabiltzen duzu bizikleta garraio moduan? Eta zergatik?

Orain dela 15 urte inguru hasi nintzen bizikleta garraio moduan erabiltzen eta erosotasun kontuagatik hartu nuen erabakia. Ermuan egiten dut lan eta arazoak nituen kotxearekin, emazteak ere behar zuelako. Gainera, Eibar eta Ermua zeharkatu behar nituen eta gero aparkatu. Denbora asko galtzen nuen. Erosotasuna izan zen arrazoi nagusia, baina badaude beste kontu batzuk ere. Adibidez, osasuntsua eta ekonomikoa dela. Gainera, modu honetan ingurugiroa zaintzen dugu.

- Hasieran zalantzarik eduki zenuen? Autoekin errepide berean nola moldatuko zinen, euriarekin eta hotzarekin bizikletan ibiltzea nolakoa izango zen, eta abar.

Desplazamenduen gaia ohitura kontua da. Bizikletan mugituko zarela erabakitzen baduzu, euria egiten duenean zira eta euritako frakak janzen dituzu eta kitto, arazo barik. Amsterdamen, adibidez, mundu guztia dabil bizikletan (nerabeak, gazteak, helduak eta zaharrak), eguraldi ona zein txarra egin, eta orokorrean hango eguraldia ez da hemengo baina hobe. Bizikletan ibiltzeko ohitura oso barneratuta dute. Biztanle bakoitzeko bi bizikleta daude han. Donostia inguruan ere hasi da bizikletaz mugitzeko ohitura indartzen, baina Eibar inguruan apenas ikusten dut jendea. Egia ere bada, ez dituzte asko laguntzen. Hemengo bideak eskasak dira, ia ez dago bidegorririk... gauza batzuk ulergaitzak dira. Bariantearen azken fasea egin zenean pentsatzen dut ez zela oso zaila Unibertsitate Laboraletik Ermura bidegorria egitea. Barianteararekin trafikoa jaitsi behar zela ikusten zen eta bidea nahiko zabala da, baina betiko bazterbideak jarraitzen du hor.

- Eibarko orografia aitzakia da bizikletan ez mugitzeko?

Orografia ez du laguntzen, baina pentsatzen dut aitzakia dela gehiago. Lanera

“Bizikletan ez dut sentitzen bizia arriskuan jartzen dudarik”



“Niretzat orain gogaikarria da lanera autoan joatea”

joateko 40 minutuz bizikletan ibiltzea larregi izan daiteke, baina 20 minutu (Elgoibar edo Ermura joateko, adibidez) ez dira gehiegi. Hori bai, bideek ez dute hainbeste laguntzen jendea animatzeko. “Bizikleta hartzen dut egunero eta larrua arriskatzen dut”, esan izan didate. Hori du bizikletak, txasisa zu zarella.

- Nolako elkarbizitza izan duzu autoekin orain arte?

Orokorrean autoan doan jendea nahiko errespetutsua da. Beti dago baten bat ondo-ondotik pasatzen dena, klaxona jotzen dizuna... baina ez dut kezarik. Egunero erabiltzen dut bizikleta eta ez dut sentitzen bizia arriskuan jartzen dudarik.

- Amañako pasealekuan bidegorria egin berri dute eta badirudi Eibartik Maltzagaraino ere beste bat egingo dutela. Nola ikusten dituzu horrelako neurriak?

Bizikletaren erabilera sustatzeko bide horretatik joan behar garela pentsatzen dut. Bizikleta garraio moduan erabili nahi badugu, bidegorriak behar ditugu. Kirola egiteko beste gauza bat da, baina garraio moduan erabiltzeko, bai. Ermuan 200 metroko bidegorria dago eta gustora nabil tarte motz horretan. Amañan 300 metro inguruko bidegorria dago, baina gero malda igo behar da Ermura jarraitzeko. Izerditan hasteko beste! Batzuetan ez dituzte gauzak errazten.

- Zure erudia jarraitzera animatu da inguruko jendea?

Familian bai, hiru anaiak erabiltzen dugulako bizikleta garraio moduan, baina bestela ez.

- Probatzea da kontua?

Bai, baina baldintza onekin. Gero, ohitura kontua da. Niretzat orain gogaikarria da lanera autoan joatea. Auto-ilarak, apartakalekua aurkitzea... denbora gutxiago behar dut bizikletaz heltzeko. Pentsatzen dut poliki-poliki jendea bizikletaz mugitzen hasiko dela gehiago, hiriburuetan batez ere, baina aldaketak ez dira egun batetik bestera egiten.

FORD KONDIA

ERAKUSKETAK BERRITUKO DITUGU

IRAILEAN
BAKARRIK
PREZIO
SINESTEZINAK!

FORD KUGA

ERABAT EKIPATUA: **18.350€**

FCE Bank-ek finantziatuta hil amaierara arte. Baldintzak begiratzeko: Fordkondia.com



Crossover Focus Active berria

Erabat ekipatua

135€/hileko*

Sarrera 5.877€. Azkeneko kuota 9.520€. TAE %9,29



Miatu ezazu ezezaguna den hori gidatzeko 5 moduekin



TRAIL



IRRISTAKORRA



SPORT



ECO



NORMALA



EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569

KONDIA

www.fordkondia.com

AUKERARIK GABEKO FORD GAMAKO FOCUS BERRIA: WLTP KONTSUMOA ZIKLO MISTOA 4,3L/100KMtik 7,1era. CO₂ WLPT EMISIOAK 111g/KMtik 161ra (88G/KM NEDCetik 134ra), INDARREKO ARAUDIARI DAGOZKION NEURRIAK. CO₂ EMISIOAK ALDATU EGIN DAITEZKE AUKERATUTAKO EKIPAMENDUAREN ARABERA. NEDC BALIOAK IBILGAILUAREN EROSKETAREKIN LOTUTAKO ZERGA-SISTEMAREN KALKULURAKO KONTUAN HARTUTAKOAK IZANGO DIRA.

*Focus Active 1.0 Ecoboost 92kW (125cv), 20,3 cm-ko (8") ukipen-pantailadun SYNC 3 irratiarekin, 6 bozgorailu, 43,2 cm-ko (17") aleazio-hagunak, eguneko LED argiak, aparkatzeko aurreko eta atzealdeko sentsoreak, aldapan abiatzeko laguntzailea, erreari eustekoa eta aurretalka larrialdiko balaztakarekin. Eskaintzaren barne daude BEZ, IEDMT (Hainbat Garraiobiderekin gaineko Zerga Berezia. Erkidego bakoitzean aldatu egiten denez, kasu bakoitzean gainbegiratzeari gormendatzen da), garraioa, promozio-deskontuak, diru-ekarpena. Kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc. S.E.-rekin finantziatzeagatik, 9.000€-ko gutxieneko kopuruarekin eta 25 hilabeteko gutxieneko iraupenarekin. FCE Bank plc.S.E.-ren MultiOpción eskaintza 49 hilabetetara eta 20.000 km/urtean. Azkeneko prezioa 18.358,69€. Maileguaren kopuru osoa: 12.481,69€. Irekiera-komisioa 424,38€. TIN %7,80. Zordundutako kopuru guztira 16.424,38€. Epeko prezioa guztira 22.301,38€. Kreditu-balioztapenari lotutako operazioa. Eskaintza hilabetean egindako eta matrikulatutako unitateei aplikatuko zaie. Ikusten den modeloak ez du zertan bat egin eskaintza ibilgailuarekin. Penintsulan eta Balearrean ballagarria hilabetea amaitu arte. Ez da beste deskontu batzuekin bateragarria.

Thiago Almeida (dantzaria):

"Gizartearen hipokresia islatzen saiatzen gara dantzaren bitartez"

Toki batetik bestera dantzan egiten du Thiago Almeidak. Ertza dantza-konpainiaren 'Meeting point' eta 'La teta de Janet' ikuskizunek izan duten arrakasta handiarekin agenda betea du, baina pasioz egiten du dantzarekin zerikusia duen oro. 'Meeting point' lanarekin Hego Koreara joan aurretik Coliseoan egongo da 'La teta de Janet' aurkezteko hilaren 27an 20:30ean.

- 'La teta de Janet' aurkeztuko duzue Coliseoan. Nolako ikuskizuna izango da?

Normaltasunaren inguruan hausnartzen du ikuskizunak. Zer da normala? Nork erabakitzen du zer den normala? Munduko toki batean normala dena, beste batean gaizki ikusia edo debekatuta egon daiteke. Gizartearen eta gizakien hipokresia islatzen saiatzen gara dantzaren bitartez.

- Zein da zure rola ikuskizunean?

Hainbat gauza egiten ditut. Libre eta garen modukoak bezala onartua izan nahi duen barreneko gauza hori erakutsi nahi dugu, moralarekin etengabeko borrokan dagoen alde hori. Generorik ez duen pertsonarena egiten dut batez ere. Egun batean emakumeek bezala eta bestean gizonezkoen moduan jantzi nahi duen pertsonarena, gizarteak esan ahal duenari jaramon egin barik.

- Gizonezko dantzari onenaren saria jasotzeko izendatu zizuten azken Max Sariatari. Nola hartu zenuen berria?

Zoragarria da, baina dantza egiteko orduan nire burua epaitzeko arazoak izan ditut beti, nire burua ez dudalako hain maila profesionalan ikusten. Ez dut uste gaizki egiten dudarik, baina beste dantzari batzuk ikusten ditut eta ibilbide luzeagoa eta profesionaltasun gehiago dutela iruditzen zait. Izendapena jaso nuenean poztu egin nintzen, baina hain ibilbide luze eta profesionala duten dantzarien alboan egonik banekien ez nuela ezer gehiago lortuko. Hala ere, pausu bat da eta etorkizunean urrunago iritsi naiteke.



- 'La teta de Janet' eta 'Meeting point' ikuskizunek arrakasta handia lortu dute. Nola kudeatzen duzue hori?

'Meeting point'-ekin Max Saria jaso genuenetik lan gehiago izan dugu eta gure lanak onespen gehiago jaso du, baina publikoari ikuskizuna gustatzea da gehien asetzen gaituena, baita arrakasta gutxi izan duten lanekin ere. Max Saria ondo gelditzen da curriculumean, jaso genuenean asko gozatu genuen eta motibagarria da, baina hor geratu zen eta ez daramagu soinean. Badakigu 'Meeting point'-ekin publikoa emozionatu egingo dela, baina 'La teta de Janet' askoz ere gutxiagotan egin dugu eta fresko mantentzen da. Gehiago estutzen digun ikuskizuna da eta horrelako zerbait egiteko gogoia nuen, lurrean lehertuta eta izerdi-patsetan amaitzea.

- Henrique de Souzarekin egiten dituzu ikuskizun biak. Nola moldatzen zarete elkarrekin?

Urte asko daramatzat berarekin dantza egiten eta aldaketa nabaritu diot dantzari moduan. Orain askoz ere hobeto moldatzen gara elkarrekin eta igartzen da, ikuskizun erreala goa egiten dugulako.

- Dantzan hasi zinenean guzti hau biziko zenuela irudikatzen zenuen?

Ezta gutxiago ere. Kasualitatez hasi nintzen dantzan 18 urterekin. Lagun batek esan zidan 'Fama' saioko neska batek dantza-akademia bat zabaldu zuela Donostian eta laguntzeko. Berarekin joan nintzen, handik bi hilabetera lagunak utzi egin zuen eta nik jarraitu egin nuen. Hasi nintzen ez zitzaidan hainbeste gustatu, baina popping delako dantza-estiloa ezagutu nuen eta atentzioa deitu zidan. Hortik abiatu nintzen, baina sekula ez nuke pentsatuko Max sari bat jasoko nuenik, arrakasta handiko ikuskizunak egingo nituenik, ez ezer.

- Orain klaseak emango dituzu Nerea Lodosa Dantza Konpainian. Nolakoak izango dira?

Klase teknikoak izango dira. Koreografiak egingo ditugu, baina teknika lantzea gustatzen zait dantzarietara erraminta baliagarriak eskaintzeko. Teknika ikasita, dantzarietara euren kabuz garatu ditzakete euren dohainak. Gogotsu nago, 2-3 urte daramatzadalako klaseak eman gabe, buru-belarri ibili naizela ikuskizunekin.



On Ekin negozio-ideien lehiaketarako proiektuak urriaren 3ra arte jasoko dituzte

Aurreko barixakuan aurkeztu zuten udal-letxean "On Ekin" enpresa arloko ideia eta proiektuen lehiaketaren 7. edizioa. Ekitaldian azaldutakoaren arabera, "lehiaketarekin sormena piztu eta ekintzaileen proiektuak babestu" nahi dituzte. Izan ere, lehiaketa negozio-ideiaren bat duten ekintzaileei zuzenduta dago. Proiektuak aurkezteko azken eguna urriaren 3a izango da eta hautagaitzak onekin@ekingune.com helbide elektronikora bidali beharko dira. Lehiaketari buruzko informazioa Eginguneren web orrian dago.

Lehiaketaren lehen fasean epaimahai batek lehiaketara aurkeztutako proiektuak aztertu eta baloratuko ditu eta, kontuan izango dituzten irizpideen artean, besteak beste, aurkeztutako proiektuaren bideragarritasuna eta berrikuntza daude. Gainera, emakumeek sustatutako proiektuak, ekonomia zirkularri edo berdeari lotutakoak, ekintzailetza sozialarekin zerikusia dutenak eta 4.0 industria barruan daude-nak lehenetsiko dituzte.




Sari garrantzitsuak

Lehiaketaren bigarren fasean, bestalde, 'On Ekin' afaria egingo dute Kerizpe elkarteak, urriaren 17an, eta bertan parte hartzera animatzen direnek bozketa baten bitartez aukeratu dituzte irabazleak, epaimahaiak aukeratu dituzte sei finalistaren artean. Afarian edozeinek har dezake parte, interesatuek mezu bat bidali beharko dute ekingune@ekingune.com helbidera edo, bestela, 688 734 292 telefono zenbakira deitu eta 35 euro sartu ES94 2100 1883 9502 0021 0124 kontu korrontean, urriaren 15a baino lehen.

Hortik 15 euro sarietarako bideratuko dira. Lehen saria 2.500 eurokoa izango da, bigarrena 1.000 eurokoa eta hirugarrena 300 eurokoa. Gainera, lehiaketa parte hartzen duten guztiek, Elkarteko kide izan nahi badute, urtebeteko kuotan %50eko deskontua izango dute.

Aurkezpen ekitaldian Miguel de los Toyos alkatea, Esther Velasco zinegotzia, Maialen Gisasola Ekingune elkarteko presidentea, Vanesa Hortas Ekingune elkartearen ordezkaria eta Josu Alkain (Caixabank) eta Mariela Saitz (AXA aseguruak) lehiaketaren patroinatzaileak egon ziren.



DBHko ikasleentzat argazki lehiaketa antolatu dute gaztelekuan

Indianokua gaztelekuak martxa betean ekin dio irailari eta, hilabete honetarako antolatu dituzten jardueren artean, Udako Argazki Lehiaketa prestatu dute DBHko ikasleentzat. Parte hartu nahi dutenek irailaren 30a baino lehen bidali beharko dituzte euren argazkiak, eibarkogaztelekua@gmail.com helbidera. Informazio gehiagorako 688 682 372 telefonora deitu daiteke. Eta, horrez gain, animatzen diren gazte guztientzat "Altxorraren bila!" jokoa antolatu dute iraileko azken astebururako, irailaren 28 eta 29rako, 17:00etatik aurrera.



ANTONIO GONZALEZ GUERRERO

4. urteurrena: 2015-IX-20

"Betirako gure bihotzean"

ETXEKOAK





maria alonso

Urtero saiatzen naiz ilusioz hartzen garai hau eta bidean pertsonalki eta profesionalki garatzen lagunduko nauten helburuak jartzen

Ikasturte berri on!

Betidanik pentsatu dut niretzat urtea ez dela urtarrilean hasten, irailean baizik. Opor osteko garai honetan ia guztiok helburuz, erronkez eta ametsez betetzen ditugu gure agendak. Nik behintzat, horrela egiten dut. Aurrekoan sare sozial batean irakurri nuen, Instagrameko profil batean konkretuki, iraila urteko astelehena bezalakoa dela, eta egia da.

Opor osteko martxa hartzea batzuetan nagitasun handia ematen duen arren, garai polita izaten da aurreko ikasturtean bete ez genituen erronkak berriz ere martxan jartzeko edo amets berriei aukera emateko. Agenda guztiak, orri zuriz oraindik.

Askorentzat ilusioz beteriko garaia izaten da, bai ikasturte akademiko bat hasten dutelako, bai lan-urtea proiektu berriz beteta ikusten dutelako. Oraindik gogoratzen dut unibertsitatea hasi bai-

no lehen izan nuen Irail hura, irrika hura... Ezin dut esan urtero errepikatu dudarik sentsazio bera, baina urtero saiatzen naiz ilusioz hartzen garai hau eta bidean pertsonalki eta profesionalki garatzen lagunduko nauten helburuak jartzen. Helburu horien artean, askotan, lanez aldatzea edo lan bat topatzea dago. Bide horretan, ametsak edukitzeaz gain, helburuak eta erronkak bete daitezten, plan bat ezarri behar dugu, esfortsuz beteriko bidea eraiki behar dugu. Ametsak edukitzea ondo dago, baina ez da nahikoa, arrakasta lortu ahal izateko lan handia egin behar dugu, egunero borrokatu behar dugu.

2019-2020 honetan, zuen amets, erronka eta helburu guztiak bete daitezten opa dizuet.

Ikasturte berri on!



ander romarate

Aukeratu gustuko duzun kirola, zure ezaugarrietara egokitzen dena. Profesional baten laguntza eskatu jarduera zure beharretara egokitzeko

Hondartzatik gimnasia

Abuztuak 15, hondartzako txiringitoan kaña bat eskuan duzula, zure buruari zera esan diozu: Nahikoa da. Udaz gozatu egingo dut eta itzuli bezain laster kirola egiten hasiko naiz! Ondo pentsatzen badugu uda da gorputza gehien jipoitzen dugun garaia. Errutina apurtzearekin bat, asko dira jasan behar ditugun tentazioak: arratsaldeko poteoa, herriko festak, izozkiak... Beraz, kilo batzuk irabazteko egoera apropos batean gaude.

Hori dela eta, oporretatik itzuli bezain laster gehiegikeria horiek desagerrarazten ahalegintzen gara. Baina, gizakia pazientzia gutxi duen izaki biziduna denez, dena muturrera eramaten dugu eta jarduera fisiko programa gogor eta dieta zorrotz batean murgiltzen gara. Horrela, hondartzako txiringito eta friturak utzi eta gimnasia bizitzera eta entsalada jatera pasatzen gara.

Bizitza aktiboa eta elikadura egokia izatea osasuntsu mantentzeko

alde garrantzitsuenak dira. Baina, ekuazio honetan atxikidurak duen garrantzia alde batera uzten dugu. Astean egunero kirola egiten hasten banaiz, eta asteburuan edaten nuen alkohol guztia kentzen badut, zer gertatuko da? Argiaren abiadura pisua galtzen hasiko naitzela. Baina, bizitza estilo zorrotz hori epe ertain edo luzera ematea ezinezkoa da eta bi hilabete pasa baino lehenago hasierako egoera itzuliko gara edo egoera okerrago batera (errebote efektua).

Aukeratu gustuko duzun kirola, zure ezaugarrietara egokitzen dena. Profesional baten laguntza eskatu jarduera zure beharretara egokitzeko. Astean 30 minutuko bi sesio nahikoa da? Poliki poliki hasi eta erosoago sentitzen zaren heinean lan karga handitu. Urte askotan zehar jarraitzeko gai izango zaren errutina bat lortzen baduzu, zure gustukoa dena eta zure bizitza estilora egokitzen dena, partida irabazi duzu.

Eibarko musikak Legarren du egoitza. Auzoaren goiko aldean, etxeek eta zementuak mendiari lekukoa ematen dioten tokian, eibartarron barrenetik ateratako doinuak entzuten dira. Estilo eta ezaugarri ezberdinekin, baina Legarren bakarrik aurkitu daitekeen nortasunarekin. Belarriak prestatu, hilaren 27tik 29ra Legarretik jaitsi eta herriko hainbat tokitan izango baititugu hango musikariak.



Musikak lotzen dituen belaunaldi ezberdinetako jendea batzen da Legarreko musika sorkuntzarako lokaletan. Horren adibide dira Zalao Urain (Kokein), Borja Etxebarria 'Tiri' (The Vartools, Dee Versions...) eta David Carballo 'Karba' (Kvalvika, DJ Karba). 'Karrikan' egitasmoa eta iristear den Legarreko lo-

kalen 25 urteurrena aitzaki moduan erabilita, bertan bizi dutenaren berri emateko elkartu ditugu. Istorio ugari ezkututzen dira Legarreko paretan barruan eta Eibarko musikaren historian zehar ibilbidea eskaini digute.

Legarreko musika sorkuntzarako lokaletan egiten den musika Eibarko osora zabaltea. Hori da Eibarko Musikari

Gazteen Elkarteak (EMGE) 'Karrikan' egitasmoarekin duen asmoa. "Elkarteak urtero kontzertu bat antolatu izan du Sanandresen bueltan, baina azkeneko urte bietan ez zen ia publikorik egon. Gauez izanda hotza egiten du, jendea tabernetan dago kalean baino gehiago... Grazia bariko zerbait zen", dio Borjak. "Orduan, inguruko herri batzuetako ereduari jarraituz (Gernika, adibidez), Eibarko hainbat tokitan egiten den musika plazaratu eta, gutxienez, bizirik gaudela esateko, askok ez gaituztelako ezagutzen". Zaloaren iritzi, gainera, talde askorentzat aukera polita da norberaren herrian jotzeko, "askotan ez delako batere erraza". Orain arte antolatutako kontzertuetan kanpoko taldeak ekarri izan dituzte, "publikoa gehiago motibatuzeko", baina aurrean etxean egiten dena erreibindikatu nahi izan dute.

Sei talde eibartarrek joko dute zuzenean herriko toki ezberdinetan hilaren 27tik, barixakua, 29ra, domeka. Egita-

rauaren azken xehetasunak zehazten dihardute, baina herriko toki guztietara musika eramatea da asmoa. Aldaketarik izan ezean, barixaku arratsaldean Ez Dok taberna parean Kvalvika eta Mise en Abymek joko dute, zapatu eguerdian Amesti tabernan DJ Karba egongo da eta Paulanerren Big Ion, zapatu gauean Ekino-ciok Belekone joko du, eta domeka eguerdian Ni Neu izango dugu Zubi Gain tabernan. "Estilo ezberdinen kontzertuak eskaintzea pentsatu dugu. Hemen sortzen den musika plazaratu eta, gutxienez, bizirik gaudela esateko, askok ez gaituztelako ezagutzen". Zaloaren berbetan.

'Karrikan' egitasmoa hasiera bat da EMGE-koen berbetan. "Ekimen honekin hazi bat erein nahi dugu", Daviden berbetan. "Korrika ibili gara presaketekin, arazoak izan ditugu baimenekin eta ikusiko dugu nola irteten den". Zaloarentzat, bestetik, garrantzitsua da herritarren erantzuna zein den ikustea. "Entzuten dutena gustatzen bazaie, gehiago motibatuko dira hemengo taldeak jarraituzeko". Horregatik, asko baloratzen du kontzertuak he-



Big Ion

LEGARREKO LOKALETIK PASATUTAKOAK

Luther
 Kafha
 PAM
 Kokein
 Zippers
 Sin
 Ehun Kilo
 Flippin' Folk
 Cerebral Effusion
 La Banda Del Mosky
 Norman
 Eskarmiento
 Ekinocio
 Sagarroi
 Gatazka
 The Vartools
 Storbais
 Alume
 Garrapata
 Aizkora beltza
 Eroa Naizen
 Funky Mongi
 Be Quiet
 Lorelei
 Zapatu Beltza
 Hikara
 LPC (Luchando para cambiar)
 E-Dolls
 Kvalvika
 Xero Xiete
 Eirband
 Mugi Panderoa
 A tutiplain
 Oso basatis
 Ni neu
 Moon
 Mise en Abyrne
 Traketsak
 Dee Versions
 Beato
 EH Sukarra
 Big Ion
 ...



Ekinocio

rriko hainbat tokitara eramatea ("ez bakarrik erdialdera") eta eguneko momentu ezberdinetan programatu izana (eguerdian, arratsaldean eta gauean). Musika kalean bizitzea da Zaloarentzat ekimen honen gauzarik politena. "Horrelako ekintzak oso aberasgarriak dira kulturalki".

Lokalen funtzionamendua

Legarreko musika sormenerako bederatzi lokalak denak emanda dabilta lanean. Jo eta su. Gaur egun, ia beti gertatu izan den bezala, beteta daude, Eibarren musika egiteko dagoen gogo eta gaitasunaren seinale. Hiru talde daude lokal bakoitzean, beraz, 27 daude guztira gaur egun. "Taldea batek uzten badu, beste bat sartzen da berehala, normalean itxarotzerrenda egon izan delako", dio



Zaloak. "Orain, kasualitatez, ez dago itxarote-zerrendarik, beraz, aukera ona da izena-emateko". Borjak, adibidez, urte eta erdi itxaron behar izan zuen sartzeko eta Davidek bederatzi hilabete. "Nik ezer", dio Zaloak barrez. "20 urte daramatzat hemen Kokein taldearekin. 20 urte, errez esaten da. Lehen gau-



zak beste modu batean egiten ziren, baina moldatzen joan gara denborarekin".

Asanblada inguruan antolatu da beti Legarreko musika sortuntzarako gunea eta funtzionamendua kide guztien artean eraman da. "Beti egon da gehiago edo gutxiago egin

izan dugu, sasoi batean lau katu joaten biltzen ginelako", Borjaren berbetan. Arau batzuk ezarri dituzte, "bizikidetzara arau minimo batzuk", lokalen funtzionamendua eta taldeen arteko errespetua bermatzeko. Hala ere, hirurek diote inoiz ez dutela arazo handirik izan. Lokal bakoitzean nahi duten moduan antolatzen dituzte talde bakoitzaren orduak, euren behar edo nahien arabera, eta ondo moldatu izan dira horrela.

Udalak musikariei eskaintzen dien tokia da Legarrekoa eta EMGE-k kudeatzen du beste guztia. "Beste herri batzuetako musika lokalekin alderatuz, hemen ikusten dudana abantaila bat da musikatresnak eta abarrak barruan utzi ahal ditugula, ez garela aurrera eta atzera biltzeko behar instrumentuekin soinean", Zaloaren berbetan. Legarren, gainera, grabaketa-estudioa dago, gaur egun Walter Tuzzeo italiarrak kudeatzen duena, eta disko ugari sortu dira bertan. "Maila handiko estudio da", Daviden iritziz. Izan ere, Zaloaren ustez, Legarreko lokalek eskaintzen dutena oso ondo dago. "Beste herri batzuetatik etortzen den jendea harrিতa geratzen da hemen dugunarekin. Denetarik dugu, gozamen da".

duen jendea, baina guztien artean kudeatu dugu guztia, egiten duguna guretzat izan delako", Zaloak dioenez. EMGE elkartearen presidentea, idazkaria eta abar izendatu behar ditu ofizialki, baina eguneroko funtzionamenduan kide guztiek dute botere bera. "Txandak ibili izan gara eta denok pasa izan gara postu guztietatik", dio Zaloak. "Hemen ez dago hierarkiarik. Erabakiak guztien artean hartzen ditugu, guztien beharretara egokitzen. Ez da erreza, jendea sartu eta irteten egiten delako, ikuspuntu ezberdinak dituen jendea dagoelako... baina gutxi gorabehera betiko funtzionamendua mantentzen dugu".

Hilean behin biltzen dira eta talde bakoitzeko kide bat joan behar da bileretara. "Hor, adibidez, araren bat jarri behar

Hori bai, lokalek duten irisgarritasuna hobetzeko beharra ikusten du hirukoteak. "Hona heltzeko eskailerak igo edo jaitsi behar ditugu. Beraz, elbarri-

tu batentzat arazo handia da hona etortzea eta, bestela ere, musika-tresnak kargatu edo deskargatzea nahiko gogaikarria da”.

25. urteurrena ate-joka

25 urte inguru pasa dira Legarreko lokalak martxan jarri zirenetik eta ehundaka talde pasa dira ordutik. Batzuek oraindik jarraitzen dute, beste batzuk hasieratik ez baina urte asko daramate, hainbat taldek hasi eta utzi egin dute eta, batzuk, bertan elkar ezagututako musikariaren artean sortutako proiektuak dira. Hain modan dagoen sinergia berbak adibide polita du Legarren. *“Elkarbizitza polita sortzen da hemen eta oso aberasgarria da”,*

Zaloaren iritiz. *“Nire lehen eta bigarren diskoetan lokal ezberdinetako jendeak hartu du parte, adibidez”,* dio Davidek. *“Barixaku edo zapatuan etorri, beste lokal batean sartu eta jam session bat egiten amaitu dezakezu”*

Musika mota guztietako taldeak egon dira Legarren, eibartarrak zein kanpokoak. *“Ermuan Betiondoko musika-lokalak zabaldu arte ermuar asko egon da hemen, eta oso aktibo gainera. Ekarpene handiak egin dituzte”,* dio Davidek. Zendu berri den Iñigo Muguruzaren Sagarroi taldeak ere orduak eman ditu Legarreko lokalatan, Gorka Baskaran batera-jole eibartarra tarteko.

Batzuk badoaz eta berriak



datoz, musika estiloak bezala. Urte hauetan hemengo taldeetan estilo aldaketa egon dela ikusten du hirukoteak. *“Gizartean aldaketak egon diren moduan, hemen ere egon dira. Lehen, adibidez, hemen ez zegoen DJ askorik, gehienak taldeak ziren (ahotsa, gitarra, baxua eta bateria). Lehen arazak izaten genituen bateria lokalean sartzeko, baina hori ere aldatuz joan da, gizartea bezala teknologia ere aldatu egin delako”,* dio Zaloak. Hala ere, Legarren beti egon dira estilo ezberdinetako musikari eta taldeak, gaur egun bezala.

Legarreko atea zabalik dade musikari edo musika taldeentzat. *“Hileko bigarren*

eguztanean bilera egiten du-gu eta bertan azaltzea nahikoa da izena-emateko. Esan bezala, orain etorri gero, ez dago itxarote-zerrendarik”, Davidek dioenez. Jende gaztea animatu nahi du hirukoteak eta, batez ere, emakumeak. *“Oso emakume gutxi egon izan gara. Musika egiteko toki bila nahiko galduta dabilen norbait baldin badago, hemen du tokia”,* dio Zaloak. *“Ez dakit nola, baina emakumeen parte-hartzea piztu beharko genuke”,* Daviden iritiz. *“Emakume eta gazte gutxi dago hemen, eta ez dakit zergatik”,* Borjaren berbetan. Entzun duzue, hau da Legarretik iristen den deia.



I. urteurrena
2018-IX-22

Jon
Gure
artean
jarraitzen
duzu.

GELAKO
GURASO,
SEME-ALABA
ETA LAGUNAK

NON GAUDE?

Jardineta Kalea 3 EIBAR
kaxagunea@gmail.com
www.kaxa.eus
689 1161 04

ASTELEHENA 17:00etan
+ Ostiraletan tailer berezia

Ikasurte osoko ikastaroa.

ANTZEZPENA

Zure seme alabak antzezpenearen munduan murgiltzeko aukera paregabea!

EIBARKO UDALA

KAXA

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental · hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
Tf: 943 53 06 42
ane_mendiá@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

| | |
|-------------------|---------------|
| Degluzio atipikoa | TDAH |
| Disfonia | Berba arazoak |
| Ikaste-arazoak | TEA |
| | Dislexia |

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA



838200124
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA



Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA



HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsikoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA



Errebal, 15 - 1. ez.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Psikoterapia

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR



FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04
Bailen, 9 - 1. ez. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

RPS: 32/17

Bera Bera Avia Eibar Rugby Taldea baino gehiago izan zen Unben

Egutegi zailari egin behar dio aurre gure herriko errugbi klubeko talde nagusiak denboraldi hasiera honetan eta, azken denboraldiko emaitzak hobetzeko asmoa badu ere, Donostiako Bera Berak nagusitasuna erakutsi zuen Unben jokatutako ligako lehen jardunaldian, 12-48 irabazita. Eguraldi aparta zegoen errugbiaz gozatzeko eta, eibartarrek amore eman behar izan bazuten ere, fitxaketek eta 18 urtetik azpiko taldetik igo berri diren jokalariek mailak duen zailtasuna



ezagutzeko aukera izan zuten; horren erakusle, bigarren zatian jokoa lasaitu eta maila hobea ematea lortu zutela. Aviak izan zituen bajak ere eragin zuen porrotean: Kepa Zamakola, Gaizka Arrizabalaga, Patxi Muller, Ander Gallego eta Dou dou Kalling-ek ezin izan zuten jokatu. Avia Eibar Rugby Taldearen hurrengo partidua Getxon izango da, lidertzen borrokan seguru izango den taldearen aurka. Aurrez esandakoa: denboraldi hasiera benetan zaila eibartarrena.

Untzillatxeko diagonal handia egingo dute bihar Deporreko mendizaleek

Maiatzean egin ezin izan zuten irteera egingo dute bihar Klub Deportiboko mendi batzordekoek; hori bai, Mugarrako ertzen ordez, orain 941 metroko Untzillatxeko diagonal handia burutzeko. Autoak Atxarten laga eta, Urresteiren ezker aldetik pasatuta, Aitz Zorrotzarantz (Nodo) joko dute; jarraian, plaka horian barneratu eta III. graduko trepadatxoa eskalatzeko, ondo aseguratuta. Gorantz jarraituta, Leureta lepoarekin egingo dute topo. Bertan da Saukuko Kobie eta, gainekaldean, Saukuko Ganeren (865 m.) gailur ikusgarria, eskalatzailerik "La Proa" izenarekin ezagutzen dute-



Ray Muñoz

na. Lepo horretatik, Untzillatxeko gainera eramango dituen ertza hartuko dute, nahiko aireko pausu batzuetatik igarota.

Aurreko zapatuan, bestalde, Artzaintza Naturbidearen bosgarren etapa egin zuen 26 lagunekoa mendizale taldeak. Opakua

eta Bioitza lotzen dituen irteera horretan, Entzia-Iturrieta eta Urbasako zelai eta basoak zeharkatuz, ibilaldi oso atsegina egin zuten: uneoro Arabako Lautada eta Sakana bistan zituztela eta Aratz, Aralar eta Beriainera begira.

Eibartarrak Santoñako crossfit-ean

Arkaitz Lopez eta Jon Peña Santoñan antolatutako 'The Nord Encounter' CrossFit txapelketan hartu zuten parte aurreko asteburuan. Arkaitz 28. izan zen eskalatu mailan eta Jon 7. postuan amaitu zuen 35 urtetik gorakoan. Kirolari biak "pozik" geratu dira Santoñan egindako lanarekin. Kirol-disziplina ezberdinak (halterofilia, gimnasia...) kateatzen dituen kirola da CrossFita eta ariketa-programa bat egin behar da denbora jakin batean. 1974an Greg Glasman estatubatuarrek sortu zuen entrenamendu-programa da CrossFita eta hazkunde handia izan du azken urteotan.



Deporreko pilotariak bihar goizean Kiroldegian

Astelena frontoia obretan dagoenez, asteburu honetan Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak Ipurua kiroldegian jokatu dute. Goizeko 11:00etan hasiko den jaialdian bi partidu izango dira, biak ere helduen mailakoak: Narbaiza-Agirresarobe Eibarko bikoteak Bergarako ordezkariak izango ditu aurrez-aurre lehenengokoan eta Condek eta Gastañagak osatutakoak Elgoibarko Lagunak klubekoak bigarrenen.



Javier Goitia eta Paula Zarain nagusi XXIV. Simon Aldazabal igoeran

26 minutu eta 44 segundo behar izan zituen Javier Goitiak bost kilometro eta erdiko ibilbidea osatzeko, bere atzetik sartu zen Paul Ormaetxeari 45 segundoko aldea kenduta. Juan Zubiaurre izan zen hirugarren, 2 minutu eta erdira. Emakumezkoetan Paula Zarainek irabazi zuen eta Saioa Ugido bigarren sailkatua minutu eta hamar segundora helmugaratu zen. Guztira 47 parte-hartzaile izan zituen probak eta aipatutako biak izan ziren emakumezko bakarrak domeka goizean jokaturako herri-lasterketan. Bestalde, datorren eguaztenean, hilaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean "Neska Korrikalarien ideia aurkeztuko" dute Deporren. Hori dela-eta, antolatzaileek deia egiten die "edozein neska korrikalarik, berdin dio maila eta adina, gure gonbidapena onartu eta bertan izateko".

HONA HEMEN IGOERAKO PARTE-HARTZAILEAK ETA EGINDAKO DENBORAK:

| | | | |
|-------------------------------|---|--------------------------------|-----------------------------------|
| 1 Javier Goitia26'44" | 13 David Arias33'41" | 25 Josu Epelde36'14" | 37 Saioa Ugido38'33" |
| 2 Paul Ormaetxea27'29" | 14 Ibai Rascón33'57" | 26 Jon Losada36'34" | 38 Gorka Apraiz38'38" |
| 3 Juan Zubiaurre29'16" | 15 Iñaki Penedo34'29" | 27 Unai Lomana36'34" | 39 Luis Garcia39'34" |
| 4 Joseba Plaza29'19" | 16 Santi Santamaria34'34" | 28 Jokin Amorrosta36'54" | 40 Bittor Astigarraga39'35" |
| 5 Oier Lavado29'38" | 17 Markel Gutierrez34'43" | 29 David Fidalgo37'02" | 41 Asier Serrano40'00" |
| 6 Asier Galvez30'18" | 18 Gorka Galvez34'54" | 30 Imanol Teresa37'14" | 42 Mikel Zabaleta40'42" |
| 7 Jokin Alonso30'43" | 19 Jose Antonio Ochoa35'15" | 31 Alex Gonzalez37'19" | 43 Zigor Egia42'08" |
| 8 Haritz Barrutia31'36" | 20 Alex Idigoras35'26" | 32 Paula Zarain37'23" | 44 Antonio Vazquez45'18" |
| 9 Roberto Gartzia31'50" | 21 Mikel Goitia35'35" | 33 Jokin Azkoaga37'24" | 45 Josu Elejalde46'17" |
| 10 Iban Arriola32'12" | 22 Iñaki Lopez de Gereñu35'53" | 34 Ibai Larrañaga37'51" | 46 Juan Jose Malvar46'17" |
| 11 Javi Alday32'40" | 23 Rafa Prieto36'05" | 35 Zigor Iriarte38'04" | 47 Mikel Urkidi46'17" |
| 12 Iñaki Serrano33'19" | 24 Jesus M ^a Etxaide36'09" | 36 Aitor Oiarzabal38'09" | |

Urbateko waterpolo taldea hirugarren izan zen Zornotzan

Aurreko zapatuan denboraldiko lehenengo konpromisoa izan zuen guztiz berri den Urbat waterpolo taldeak Zornotzan. Finalerdian eibartarrek 25-6 galdu zuten Ohorezko Mailan jokatzeko duen Waterpolo Navarrarekin, baina hirugarren eta laugarren postuetarako borrokan ondo irabazi zion Portugaleteko Nauticari (17-9). Lana eta ikasketak direla-eta, Urbatek harrobiko jokalaririk asko igotzen ditu mailaz; esaterako, aurreko zapatuan 2006an jaiotako Paul Alberdik eta Ander Treviñok jokatu zuten Zornotzan.



Bihar jokatu da VI. Flysch Beltza

Bihar goizean jokatu da VI. Flysch Beltzak hartuko dituen zeharkaldi biak. 6 kilometro eta erdikoa Saturrarango hondartzatik irtengo da 10:00etan eta 3 kilometrokoa handik ordubetara Mutrikuko arrantzetatik. Biek ere Debako hondartzan izango dute amaiera eta bertan zozketak, sari-banaketa eta musika izango da, igerilariak indarberritzeko edari eta janariarekin.

Telletxea eta Uriarte fitxatu ditu Eibar Eskubaloiko proiektu berriak

Aitor Telletxea zentrala hiru urtez pistetatik kanpo egon ondoren bueltatuko da Somos Eibar Eskubaloira eta Victor Uriarte hainbat urtetan JD Arrateko atezaina izandakoa atezainak prestatzeko ardura hartuko du. Aipatutako bietan Eneko Garetxana ere gehitu zaizkie, denboraldi berriaren proiektuan laguntzeko asmoz. Eskubaloiko lehen taldeak bihar hasiko du liga Ipurua kiroldegian, 18:30ean maila horretarako igo den Avefor Huesca, herri horretako bigarren taldea har-



Gaizka Bilbao Eibar Eskubaloiko presidentea fitxaketa biekina.

tuz. Aurrendenboraldi bikaina egin dute eibartarrek, partidurik

galdu gabe. Ez eurek bakarrik, Eibar Eskubaloiko beste talde-

ek ere maila bikaina erakutsi dutelako orain arte jokaturako lagunarteko partiduetan. Azken asteburuan, esaterako, emakumezkoen lehen taldeak Urolari 13-21 irabazi zion Zumarragan; Haritza gizonzkoen bigarren taldeak 26-38 garaitu zuen Loyola Zumarragan baita, Unai Santosen 15 golekin; jubenil mailako nesken taldeak 15-27 irabazi zuen Zarautzen; kadeteen mailako lehen talde biak ere garaile izan ziren, neskek 8-28 Zarautzen eta mutilen Tekniker 13-39 Zumarragan.

Asola Berriko Ibai Diezek irabazi zuen Arrateko Amaren hiru-txirlo tiraldia

Ibai Diez Elizondo izan zen bakarra sei txirlo bota eta plenoa eginen Asola Berrin domeka arratsaldean jokaturako Arrateko Amaren hiru-txirlo tiraldian. Arrate egunaren goizaldean botatuko euriak Arrateko bolatokia kaltetu zuen eta txapelketa ezin izan zen jokatu orduan, astebete atzeratu eta Asola Berrira pasatuz. Diez irabazlearen atzetik Markina-Xemeingo Mateo Guenaga eta Jose Luis Solagaiztua eibartarra, biak ere bost txirlorekin,

eta 4rekin sailkatu ziren jarraian Elgoibarko Jabier Osoro eta Mallabiko Fidel Madariaga.

Bestalde, aurten jokaturako Gipuzkoako txapelketaren 50. urteurrenaren barruan, lau antolatutako lau tiraldi berezien arteko hirugarrena bihar jokatu da Elgoibarko San Migueleko bolatokian, goizeko 11:00etan hasita. Laugarren eta azkena abenduaren 15ean izango da jokoan Leintz-Gatzagan, orduan ere 11:00etan hasita.



Ibai Diezek txapela Eibarren geratzea lortu zuen Asola Berrin.



Escuderia Eibarko bikotea garaile Asturiako Printzesa Rallyean

Iñaki Narbaiza eta Unai Etxeberriak osatzen duten taldeak garaipena lortu du Sportech Koparen barruan Oviedon jokatu den Asturiako Printzesa Rallyean. Hasieratik lehia estua sortu zen aurreneko hiru postuetan zihozazenen artean, baina etapa erdian aurretik abantaila nahikoa lortu zuen Eibarko taldeak. Emaitza horrekin lidergoa bermatu dute Narbaizak eta Etxeberriak eta hurrengo lasterketarako prestatzen hasi dira, 15 egun barru Torres del Rio-n jokatu den rallyean izango dute erronka berria-eta.

SD Eibar eta Kirolgi hirugarren urtez kirolarien alde lanean

Eibarko klubak eta Kirolgi beste urtebetez luzatu dute euren arteko hitzarmena, dagoeneko hirugarren urtez jarraian, eta klub armaginak Maialen Axpe (pertika), Amagoia Arrieta (boccia) Pello Osoro (triatloia), Mikel Linazisoro (eskalada) eta Odei Jainaga (Jabalina) kirolariak lagundute ditu euren jardunean. Denis Itxaso Kultura eta Kirol diputatua, Amaia Gorostiza SD Eibarko presidentea eta Mikel Larrañaga SD Eibar Fundazioko presidenteordea Ipuruan izan ziren martitzenean adostasunaren nondik norakoak azaltzen, eta eurekin batera izan ziren aipaturako bost kirolarietatik lau.



Bost kirolarietatik bi, Osoro eta Jainaga, eibartarrak dira.



Iñigo Gisasola eta Francisco Trincado garaile Diana elkarteko ehiza txapelketan

Aurreko zapatuan Zanbranan jokaturako ehiza txikiko Diana elkarteko kideen arteko txapelketan, Iñigo Gisasolak irabazi zuen seniorretan eta Francisco Trincadok nagusien mailan. Gisasolak hamar eper eta galeperra bota zituen, Iñaki Isasik bost eper eta Iñaki Artetxek lau eper. Beteranoetan, bestalde, Trincadok eta

Jose Luis Gisasolak hiru eper eta galeperra lortu zituzten. Horko sailkapenari jarraituta, domekan Zanbranan bertan jokatu den eskualdeko txapelketan Iñigo Gisasolak, Enrique Isasik eta eta Oswaldo Gallastegik hartuko dute parte seniorretan eta Francisco Trincadok eta Jose Luis Gisasolak nagusietan.



Martxan da **Berbetan** EUSKERA PRAKTIKATZEKO PROGRAMA

18. ikasturtea hasiko du Berbetan programak. 2002-2003 ikasturtean ibilbideari ekin zionetik topaleku ederra eskaintzen die euskera ikasten dihardutenei. Klaseetan ikasten dutena praktikatzeko bide bat da, eta jende berria ezagutzeko ere bai. Giro natural eta informalean euskera praktikatzeko aukera eskaintzen die, laguntzeko prest dauden euskaldunen laguntzarekin. Astean behin ordubete, eta horrekin nahikoa ez daukanak, ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera zabala dauka zain.

Eguaztenean aurkeztu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak aurtengo ikasturteko nondik norakoak, proiektua babesten duten erakunde, herriko eragile eta berbalagunez inguratuta.



Aurkezpen-ekitaldian talde polita elkartu zen: erakundeetako ordezkariak eta herriko hainbat eragilez gain, berbalagun ugari ere gerturatu ziren. Aurkezpenarekin abiatu da programa eta datozen egunetan hasiko dira taldeak elkartzen, baina izena urte osoan eman daiteke.



Berbetan Jaialdia gaur

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da jaiak Eibarko Bizikleta Plazan. Eskulan-tailerrak eta puzgarriak egongo dira lehenengo eta 18:30etik aurrera, Arima Diskofestarekin dantzaldia! Eta hurrengo astean umeentzat jolasak eta txokolatada auzoetan: asteartean, irailak 24, Urkiko Ceba tabernaren aurrean, asteazkenean, irailak 25, Ipuruako Ipur taberna kanpoan eta ostiralean, irailak 27, Urkizuko parkean.

Zer zeinentzat



EUSKERA PRAKTIKATZEKO TALDEAK.

Zeinentzat? Etxean, lantokian edo koadrilan euskeraz hitz egiteko ohitura galdu dutentzat, euskeraz berba egiteko gaitasuna lortu nahi dutenentzat, azterketa ofizial baterako ahozko proba presatatu nahi duenentzat, euskera praktikatu beharra dutenei lagundu nahi dien euskaltzaleentzat.

Astean behin ordubete, taberna batean elkartu eta lasai eta modu informalean euskeraz berba egin. Asteko edozein egunetan, goizez zein arratsaldean eta doan. Ekintza osagarri ugari urritik hasita ekainera arte: irteerak, tailerrak, hitzaldiak...



Talde natural moduan eman daiteke izena: parkeko gurasoak, eskola kanpoan elkartzen diren gurasoak, guraso-koadrilak... Era naturalean elkartzen direla aprobetxatzen da, elkartzen diren unehorietan euskeraz egin dezaten. Haurrek gurasoek egindako aha-legendak jabetuko dira eta baloratuko dute.

Zeinentzat? Euskeraz berba egiteko ohitura berreskuratu nahi duten gurasoentzat, familia-giroa euskaldundu nahi dutenentzat, euren euskera hobetu nahi duten gurasoentzat... Familian egiteko moduko plan ugari antolatzen dira urtean zehar, eta doan.



Harrera eta elkarbizitzarako programa. Taldeak auzoetan elkartzen dira, astean behin ordu eta erdi. Elkar ezagutzeta eta kultur aniztasuna sustatzeko programa da eta euskal kulturara eta euskarara hurbiltzeko helburua ere badu. Ekintza osagarriak ikasturte osoan zehar. Doan.

IZENA EMATEKO / INFORMAZIOA

www.etakitto.eus
 elkartea@etakitto.eus
 ongietorri@etakitto.eus
 943200918

Urte osoan eman
 daiteke izena



JON GOROSABEL

(2018-IX-22)

**“Mendira juan zñan, betirako.
 Gure artian beti”**

ZURE KUADRILLA



Mintzapraktika-taldeez gain...

Urrian hasi eta ekainera arte ekintza ugari eskaintzen dizkie ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan programetan izena eman dutenei: txangoak, sukaldaritza, familientzat tailerrak, hitzaldiak... Euskera praktikatzeaz gain jende berria ezagutzeko aukera bikaina!



lehen hiruhileko ekintzak

Urriak 18, 17:00etan

Barixakuak Jolasian tailerra, ...eta kitto!-n

Urriak 26

Peru Harrira irteera (Leitza), egun pasa eta bazkaria

Azaroak 10

Bizilagunak bazkaria

Azaroak 15, 17:00etan

Barixakuak Jolasian tailerra, ...eta kitto!-n

Azaroak 26

Munduko Janarien Tailerra, Portaleko sukaldean

Abenduak 13, 17:00etan

Barixakuak Jolasian tailerra, ...eta kitto!-n



...EKINTZA OSAGARRI UGARI



Berbalagunen ahotsa

Berbetan egitasmoko Wafae, Haizea, Ana eta Nerea eta Ongi Etorriko Rose eta Neama berbalagunek hitza hartu zuten aurkezpenean. Euren esperientziaren berri eman ziguten, etakitto.eus mediatekan duzuen bideoan ikusiko duzuen moduan, eta gauza bat argi gelditu zen: gogoia eta interesa izanez gero, bidea askoz errazagoa dela.

TESTIGANTZAREN BIDEOA:
www.etakitto.eus/mediateka/bideoak

JON GOROSABEL FORURIA

(I. urteurrena: 2018-IX-22)



"Urtebete pasatu bada ere, gure bihotzetan beti maite izango zaitugu"

ETXEKOAK





JOSE LUIS IRIGOIEN: Herriko txokoek eskaintzen dituzten irudi bereziak.



Bertsolaria, zutabegilea, idazlea eta berbek eskaintzen dituzten sormenerako aukerak landu eta gozaten dituen emakumea da Miren Amuriza. 'Basa' izeneko liburuia idatzi du, helduei zuzenduriko bere lehen eleberria, eta irailaren 24an, 19:00etan, 'Harixa Emoten' saioan izango dugu Portaleko 3. batzartokian, liburuaren irakurleekin solasaldia izateko.

MIREN AMURIZA: "Paperaren aurrean jartzeko bultzada sentitzen dut"

- Sabina da liburuaren ardatza. Nor da bera? Nolakoa da?

Adineko emakume zaildu bat da. Urteetan zehar bizi izan duen bizimodu gogorak gogortu duen emakumea. Baserriko testuinguruan bizi da eta testuinguru hori erabiliko du bere gogortasuna adierazteko.

- 'Andre basa' berbak erabili izan dituzu Sabina deskribatu edo izendatzeko. Nola ulertu behar da kontzeptu hori?

Liburuan apropos sartu nuen basa berbaren definizioa. Basa gauza asko izan daiteke, baina Sabinak grina basati bat du. Etxekotua izateari uko egiten dion pertsona da, naturarekin harreman estua du eta hortik ulertzen du andre basaren izaera hori. Gauza bat da andre basa izatea, Sabina bezala, eta beste bat basandrea, kutsu mitologiko idealizatu horretatik baserriko andrea ikusi izan dugun ohiko modua.

- Andre lurta bat irudikatu nahi zenue-la ere aipatu izan duzu. Nola sortzen da horrelako pertsonaia bat? Errealitatean oinarritu zara?

Uste dut denok abiatzen garela errealtatetik edo inguruan dugun horretatik. Nire kasuan Sabina ez, baina Sabinaren profilekoak diren hainbat andre eduki ditut inguruan: amamak, auzokoak, izebak... Eta collage moduko bat osatzen saiatu naiz.

- Hizkuntzari garrantzi berezia eman diozu idazterako orduan?

Bai, uste dut literatura munduan dabi-

len edozeinek egiten duela ahalegina arlo horretan. Testua oso laburra eta trinkoa izango zela nekienez, dauden berba, esaldi eta parrafo apurretan ahalik eta berbarik zehatzenak bilatzen saiatu naiz, narrazioa ahalik eta bisualena izan zedin. Bestalde, pertsonaien elkarrizketetan edo Sabinaren bakarrizketetan ahalik eta ondoren egokitzen zen hizkuntza bilatzen ahailegindu naiz.

"Zorte handia da hain gustoko ditudan gauzeekin egunerokoa atera ahal izatea"

- Helduei zuzenduriko zure lehen eleberria da 'Basa'. Nolakoa izan da idazteko jarraitu duzun prozesua?

Ikasketa prozesua izan da. Umeentzako liburuak eta idatzizko hedabideentzako zutabeak idazten ibilia nintzen, eta uste nuen hau ariketa berdina izango zela, baina modu luzean, eta ez du zerikusirik. Eleberri batek eskatzen dituen aurrelanak, kokapenak... prozesu estua izan da, ni neu ere estua naizelako neure buruarekin. Hurren-

"Idazterako orduan ahalik eta berbarik zehatzenak bilatzen saiatu naiz"


go baterako argi samar dut zer egin behar ez dudana.

- Bertsotan ezagutu zintugun, baina orain idazle, zutabegile eta beste hainbat sormen lanetan diharduzu. Gauza ezberdinak egiteko beharra sentitzen duzu?

Niretzat zorte handia da hain gustoko ditudan gauzeekin egunerokoa aurrera atera ahal izatea. Kontestua aldatuko balitz ere, idazteko edo abesteko tarte bat topatuko nuke. Beste batzuek, adibidez, mendira korrika egitera, bidaiatzera edo lagunekin kaña bat hartzera joateko bultzada sentitzen dute, eta nik paperaren aurrean jartzeko bultzada sentitzen dut.

- Bertsolaria izanik ohituta zaude jendaurrean aritzera, baina 'Harixa Emoten'-en zure liburuaren irakurleekin egingo duzu solasaldia. Eroso sentitzen zara horrelakoetan?

Bai. Uda aurretik saio batzuk egin nituen eta egia da esperientzia ezberdina dela. Bertsotan jendaurrean aritzen gara, baina lana eraikitzen dugun momentua izaten da momentu hori eta ez gaude ohituta gure lana defendatzera, saltzera edo aurkeztera. Hori da liburuarekin gertatzen dena. Kokatzen ari naiz oraindik, baina ederra da paperean dagoenak hartzen duen bolumena ikustea pertsona baten begietatik eta bestearen barrenetik pasatu denean. Ea zer dioten Eibarko irakurleek.



NEREA GOMEZ
(aktorea)

“Norberaren herrian jarduteak presioa sortzen du”

Nerea Gomez Madrilen bizi den aktore eibartarra Coliseo Antzokian izango da irailaren 28an Iker Vesga eibartarrak sortutako *Dando el cante* antzeulanarekin. Iaz estreinatu zuen Madrilen, La Escalera de Jacob antzokian eta oso kiritika onak izan ditu urte honetan zehar. Nerea Gomez “La Nere” da monologo honetan eta denetarik egiten du (antzeztu, abestu...). Umorerik ez da falta.

- Astebete barru etxean ikusiko zaitugu, Coliseo antzokian. Nola zaude?

Giputxitour-arekin hasiko gara laster. Irailaren 27an Andoaingo gaztetxean egongo gara eta zapatuan (irailak 28) Coliseoan. Ilusio handia daukat nire etxean antzeztuko dudalako, baina aldi berean oso urduri nago. Hor egongo dira familiakoak, lagunak, Narruzko Zezeneko taldekideak... Nahi eta nahi ez, norberaren herrian jarduteak presioa sortzen du.

- Publikoaren erantzuna ezin hobea izan da Madrilen.

Ondo pasatzeko tartea eskaintzen duen lana da eta publikoak barre asko egiten du. Jendeak ondo pasatuko du eta eibartarrek oso ondo ulertuko dituen pasadizoak egongo dira.

- Coliseoan antzeztu duzu inoiz?

Ez, lehen aldian izango da. Urte asko daramatzat Madrilen, eta Narruzko Zezenekin nengoenean Unibertsitate Laboralean antzeztzen genuen.

- Sarritan etortzen zara Eibarrera?

Ez pentsa. Asteburuetan normalean funtzioak izaten ditut eta konplikatua izaten da. Hala ere, aukera dudan guztietan familia ikustera joaten naiz. Udan bertan egon naiz.

- 18 urte inguru Eibartik kanpo. Zure ametsak bete dituzu?

Kasualitatez etorri nintzen Madriler eta hemen geratu nintzen. Nire ametsak bete egin diren? Ba... horretan nabil. Bai-

na mundu konplikatua da. Aurten oso ondo joan zaigu “Dando el cante”rekin. Azaroan estreinatu genuen eta urte osoan lanean egon gara. Proiektu hau aspalditik neukan buruan, eta espero nuena baino hobeto funtzionatu du. Oso kritika onak izan ditu.

- Libanon ere egon zarete “Dando el Cante”rekin.

Emakumezkoen monologoaren jaialdian izan ginen Libanon, eta sekulako esperientzia izan da. Kultura erabat desberdina da eta emakumeentzako horrelako jaialdi bat antolatzea aurrerapausu handia da. Testu onenarentzako saria eskuratu genuen.

- Gidoia beste eibartar batena da, Iker Vesgarena.

Iker Garcia Vesga betiko laguna da eta Narruzko Zezeneko taldekidea. Bartzelonan bizi da gaur egun. Ez da idaztera dedikatzen, baina berezko talentua dauka eta urte mordoa eman ditut bere atzetik gidoia eskatzen. Argi nuen berak idatzi behar zuela. Egin duen testua zoragarria da. Komedia, antzerkia, umoredun abestiak... Pailazokeriak dira nagusi, baina emakumearen irudia aldarrikatzen dugu, batez ere gizartearen konbentzioetatik kanpo dagoen emakumearena. “La Nere” da komedia musikal honen pertsonaia nagusia eta bere abenturak kontatzen dira bertan. Bere bizitzako helburu nagusia abeslaria izatea da, musikari profesionala izatea, eta musikaren mundu konplikatuan bizi duen bidaia kontatzen dugu bertan.

Gaurtik aurrera ikus daitezke Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanak Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa gaur arratsaldean, 19:30ean zabalduko dute, Topalekuan. Euren artelanak erakustera animatu diren artistak Esther Fernandez de Maruri, Esteban Oroz, Esther Galarza, Jose Luis Irigoien, Vicente Iriondo, Bakarne Elejalde, Fernando Retolaza, Natalie Hickey, Arrate Osoro, Maite Arriaga, Jesus Belaustegi eta Eli Eguren dira. Urriaren 6ra arte ikusteko moduan egongo den erakusketa 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute astelehenetik barixakura eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Arrate bezperako bertso-afariko saioa “bertsoak.eus” atarian jarri dute

Arrate bezperan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta Kantabrian egin zen bertso-afariko bertsoak Bertsozale Elkarteko bertsoak.eus atarian (bertsoak.eus/saioak/2019-09-07-eibar) jarri dituzte. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso aritu ziren bertsoan eta Jon Mikel Mujikak jarri zituen gaiak. Guztira 8 bideo ikus daitezke: Hasierako agurra, “Arantzazu aldera joan, eta Espainiar ejerzitoarekin topo egin dute”, “Miarrizko bi herritar, G7aren ondorenari begira”, “Bi lagun zeramika ikastaro batean”, “Zeintzuk dira kezkatzen zaituzten gaiak?”, “Tabernako zerbitzariak ‘oparixtoak’ egiten dizkio bezeroari”, “Habenera doinuan, ahalik eta hitz gehien sartzen” eta “Portalean agertu diren gauzeekin harrিতuta daude bizilagunak”.





Musika Bandak gaueko kontzertua emango du gaur

Gaueko kontzertua emango du gaur Cielito Eibarko Musika Bandak, 23:00etatik aurrera Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, uda-letxe arkupeetan). Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, honako piezak eskainiko dituzte musikariek: "Ole Toronto" (Ferrer Ferran), "Banda Sucre" (Giovanni Orsomando), "Una Noche en Granada" (Emilio Cebrian), "Out of Africa" (konp. Johan de Mey) eta "Oregon" (Jacob de Haan). Uda sasoiaren egiten dituzten kontzertu berezi hauek agurtu eta gero, Musika Bandak Coliseo antzokiko ohiko emanaldien danboraldia hasiko du, urriaren 13an emango duen kontzertuarekin.

Bertso musikatuak eskainiko dituzte datorren barixakuan

Hankamotxak bertso eskolaren eskutik aurten ere bertso musikatuak eskainiko dituzte. Saioa datorren barixakuan, irailaren 27an egingo da, 22:00etan Txaltxa Zelaiko auditorioan (euria egingo balu, Portaleko areto nagusian). Aurtengo saioan parte hartuko duten bertsolariak Manu Goiogana, Jokin Bergara, Miren Artetxe eta Beñat Gaztelumendi izango dira eta gai-jartzailea, berriz, Maite Berriozabal izango da. Bertsolariei musikarekin laguntzen, bestalde, Aritz Bizkaik eta Gari Otamendik jardungo dute. Betiko lez, bertso saioa doan izango da.



Sanandresetarako kartel lehiaketa deitu dute

Udaleko Kultura Batzordeak 2019ko Sanandresetarako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du. Kartelaren gaia zein koloreak norberaren aukerakoak izango dira, baina derrigorrez agertu beharko da "Sanandresak Eibarren 2019" esaldia. Lanak euskarri gogor baten gainean edo formatu digitalizatuan (JPG, 300 ppp-ko bereizmenarekin) aurkeztu beharko dira, Pegora Herritarren Zerbitzurako Bulegoan, urriaren 11rako (14:30ak baino lehen). Irabazlearentzat 600 euroko saria emango dute eta, horrez gain, 10 urtera arteko irabazlearentzat eta 11-14 urte bitarteko mailakoarentzat sari bana egongo da (dirurik ez). Informazio gehiago nahi izanez gero Pegoran galdetu daiteke edo, bestela, Eibarko Udalaren web orrian begiratu.



Aisialdi programetarako izen-ematea

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei (5-7 urteko hurrei) zuzendutako Afariketan aisialdi taldeetan parte hartzeko aurrematrikula zabalik dago eta derrigorrez online egin beharko da, hilaren 23rako, www.astixa.eus helbidean. Matrikula definitiboa, berriz, irailaren 30etik urriaren 2ra bitartean egin beharko da Indianokua gaztelekuan, Arrateko Andra Mari ikastetxean edo Amañako ludotekan. Eta 5-11 urte bitarteko haurrei zuzendutako Jazinto Olabeo ludotekarako aurrematrikula ere hilaren 23ra arte egin daiteke, Astixaren web orrian. Matrikula definitiboa ludotekan bertan egin beharko da, irailaren 30etik urriaren 2ra arte. Informazio gehiago nahi izanez gero Astixara jo daiteke (943206231 telefonora deitu edo www.astixa.eus helbidean begiratu) edo kaixo@astixa.com / gazteria@eibar.eus helbideetara idatzi.

Kzguneko ikastaroak

Urriaren Eibarko Kzgunean eskainiko dituzten ikastaroetan izena eman nahi duenak, internet bidez (www.kzgunea.eus helbidean) egin dezake edo, bestela, Kzgunera zuzenean joan (Portalean, astelehenetik barixakura 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara). Hilero antolatzen dituzten kurtso guztiak dohainik dira eta edozeinentzat zabalik daude.



Kontzertu akustikoa

Zapatu arratsaldean, 18:30ean hasita, zuzeneko musika emanaldia eskainiko dute Sofia eta Ander gazteek, El Corte Ingleseko terrazan (euria egingo balu 5. pisuko kafetegian izango da emanaldia). Sarrera doan izango da.

Euskeraren transmisioa errazteko infografiak prestatu dituzte Debabarreneko udalek

Astelehenean aurkeztu zituzten udaletxean "Euskeratik eleaniztasunera" eta "Desde el euskera al plurilingüismo" infografiak, Debabarreneko udalek ikastetxeekin eta Estilografico enpresarekin elkarlanean sortu zituzten bideo laburrak. Azaldutakoaren arabera, "gurasoek sarri izaten dituzte hizkuntzen irakaskuntza prozesuaren eta erabileraren inguruko zalantzak eta kezak. Horregatik, Debabarreneko udalok gurasoentzat lagungarri izan daitekeen materiala prestatu dugu, oraingo honetan infografia formatuan".

Joseba Palenzuela Mutriuko alkatearen berbetan, "haurrengan euskeraren erabilera areagotzea da helburua. Kontu hau ez da berria, sarritan heldu

diogu gaiari, baina oraingo honetan teknologia berrien eta sare sozialen bidea jorratu beharra zegoela uste genuen eta asmo horrekin sortu ditugu infografiak".

Bi infografia prestatu dituzte, bata euskeraz eta bestea gaztelaniaz. Azaldu zuten, "euskerazkoa eta gaztelaniazkoa ez dira erabat berdinak, euskerazkoa euskeraz dakiten gurasoen kezka eta beharriari begira prestatu dugu eta gaztelaniazkoa, berriz, euskeraz ez dakitenean beharri begira. Material hau eskoletan ere erabiltzea nahi genuke, irakasleek gurasoekin egiten dituzten bileretan bereziki, oso lagungarri izan daitekeelako euskerak eleaniztasunerako bidea errazten duela erakusteko".



Astelehenean aurkeztu zituzten udaletxean ikastetxeekin eta Estilografico enpresarekin sortutako bideo laburrak.

Bestalde, mezua ahalik eta gehien zabaltzeko, WhatsApp-erako bertsioak ere prestatu dituzte. Infografiak sortzeko ardurua Eibarko Estilografiko enpresak izan du eta bertako Iban Martinezen berbetan, "udaletako teknikariek aurretik landutako gomendio, aholku eta bestelako guztiak oinarri modura hartu ditugu eta, hain-

bat bilera eta gero, gurasoei mezu nagusiak modu arin eta erakargarrian emateko materiala sortzen ahalegindu gara". Aurkezpen ekitaldian azpimarratu zuten, ikasturte hasierako bileretan gurasoei erakusteko asmoa daukate eta, horrekin batera, infografiak udalen web orrien bitartez zabaltzen joango dira.

Euskaraldiak hizkuntza jokaerak nabarmen astindu zituen

Astelehenean aurkeztu zituzten Euskaraldiaren inguruan Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren emaitzak eta, horren arabera, Euskaraldiak iraun zituen 11 egunetan "nabarmen astindu" ziren parte hartzaileen hizkuntza ohiturak eta, era berean, "proportzio altuan eutsi zitzaizkien" aldaketa horiei hiru hilabete geroago. Soziolinguistika Klusterrak azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa egin du ikerketa osatzeko, Euskaraldiko parte-hartzaileei hiru galde-tegi eginez (lehen Euskaral-



diaren aurretik, bigarrena amaitu berrian eta azkena ariketa amaitu eta hiru hilabetera).

Ikerketaren ondorioetatik nabarmendu dituzten artean, besteak beste, honako hauek

daude: parte-hartzaileek neurri handian bete dituzte eskatutako eginkizunak; parte-hartzaileen hizkuntza erabilerari dagokionez, aldaketa handiak ekarri ditu Euskaraldiak; aldaketa handiagoak egin dituzte euskeraz mintzatzeko gaitasun txikiagoa dutenek, euskeraz egiteko ohitura gutxien dutenek eta gune soziolinguistiko eraldunenetan bizi direnek; eta txapa identifikagarriek esker, jende askok (ahobizi-ek bereziki) bultzada handia sentitu du euskeraz ulertzen duten guztiak euskeraz egiteko.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Udari agurra DEBAKO Santa Katalinan

Bihar 11:30ean hasiko da jaia Santa Katalina ermitan ipuinak, musika eta hizkuntza desberdinak nahastuko dituen ekitaldian. Geoparkearen bihotzean kokatuta, egunari hasiera emateko, udara eta udazkenaren arteko muga zeharkatuko dute partehartzaileek. Ondoren, Debako kontalarien txanda izango da (12:30ean). Bazkaldu ondoren, erromeria (15:30ean) izango da Santa Katalinan bertan izaten zirenei jarraipena emanez. Bigarren ipuin saioa 16:30ean izango da, hizkuntzen dantzarekin jarraitzeko. Antolatzaileak Debako Udala eta Itziarko Auzo Udala dira eta Debako Kontalarien, Deba Inklusiboa Egiten eta Geoparkearen laguntza izango dute.



Gararock edizio berria bihar MENDARON

Zazpi musika taldek joko dute Gararock-en, bihar arratsaldeko 17:30ean Garagarzako plaza zehar hasiko den kontzertuan. Villapellejos taldearekin hasiko da saioa, 18:30ean Bermeoko Magnético grupo robot-en ordua izango da eta 19:15ean La Basu izango da eszenategian. 20:30ean Bakelitek joko du eta 21:45ean Eibarko Kokein igoko da eszenategira. 23:00etan Joseba Irazoki eta lagunak-en txanda izango da eta, amaitzeko, 00:15ean La niña Hilo-ko nafarrek itxiko dute laugarren edizioa.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

| Ostirala | Larunbata | Igandea | Astelehena | Asteartea |
|----------|-----------|---------|------------|-----------|
| | | | | |
| | | | | |

hildakoak

- Oscar San Julian Gutierrez. 41 urte. 2019-VII-29.
- Dora Zabaleta Ozamiz. 93 urte. 2019-IX-14.
- Nemesio Vega Andia. 73 urte. 2019-IX-15.
- Jose Bilbao Bilbao. 87 urte. 2019-IX-16.
- Aurkene Zuazo Lizarralde. 85 urte. 2019-IX-16.
- Celia Gonzalez Telleria. 97 urte. 2019-IX-17.

jaiotakoak

- Marcelys Valentina Moreno. 2019-VIII-29.
- Iñigo Lanas Valenciaga. 2019-IX-8.
- Urko Beretxinaga Errasti. 2019-IX-9.
- Ayan Khoukh El Azzab. 2019-IX-10.
- Irene Pescador Campaña. 2019-IX-11.
- Aaron Pescador Campaña. 2019-IX-11.
- Naia Etxaluze Richard. 2019-IX-15.
- America Baca Mendoza. 2019-IX-17.

farmaziak

- Barixakua 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Zapatua 21
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Domeka 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 24
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguaztena 25
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 26
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Erztzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 4 | 6 | 2 | 9 | 1 | 8 | 5 | 7 |
| 5 | 9 | 7 | 4 | 8 | 3 | 1 | 2 | 6 |
| 8 | 2 | 1 | 6 | 5 | 7 | 3 | 9 | 4 |
| 2 | 6 | 8 | 1 | 4 | 5 | 9 | 7 | 3 |
| 1 | 7 | 4 | 3 | 6 | 9 | 2 | 8 | 5 |
| 9 | 3 | 5 | 7 | 2 | 8 | 6 | 4 | 1 |
| 7 | 8 | 2 | 5 | 3 | 6 | 4 | 1 | 9 |
| 4 | 5 | 3 | 9 | 1 | 2 | 7 | 6 | 8 |
| 6 | 1 | 9 | 8 | 7 | 4 | 5 | 3 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | | 3 | | | | 9 |
| | 5 | | 2 | 6 | | | | 3 |
| 8 | | 7 | | | | | | 1 |
| | | | | 1 | | | 3 | 2 |
| | | 4 | | | | 6 | | |
| 2 | 8 | | | 5 | | | | |
| 3 | | | | | | 7 | | 6 |
| 5 | | | | 7 | 2 | | 8 | |
| 7 | | | 9 | | | | 2 | |

Barixakua 20**MUGIKORTASUNAREN
ASTEA**

16:00/20:00. Umeentzako jarduerak: eskulan-tailerrak eta Molto-Karts zirkuituak. Untzagan.

18:00. Nordic Walking Martxa (izen-ematea 17:00etik 17:45era). Untzagatik abiatuta.

ASTE EKOLOGIKOA

16:00/20:00. Ekoizpen ekologikoaren inguruko show-cookinga, dastaketa eta jolasak. Untzagan.

BERBETAN

17:00/19:30. Berbetan jaialdia: puzgarriak, eskulan-tailerrak eta Arima diskofesta. Eibarko Bizikleta Plazan.

LEGARREKO JAIK

19:00. Kalejira, Tartetik hasita.

19:30. Legarre Raid familia eta umeendako orientazio jolasa.

20:00. Patata-tortilla txapelketa.

21:00. Auzoko umeendako makarronada.

21:25. Tortilla txapelketaren sari banaketa.

21:30. Gazteentzat mugimendu eta sormena, Kaxa elkartearen eskutik.

23:00. Black Sapatu taldearen kontzertua. Legarren.

MUSIKA

23:00. Cielito Eibarko Musika Bandaren gaueko kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

Zapatua 21**MUGIKORTASUNAREN
ASTEA**

10:00/14:00. Bigarren eskuko bizikleten azoka. Bizikletak konpontzeko tailerra. Autorik gabeko eguna dela eta, Udalbusa dohainik. Untzagan.

ASTE EKOLOGIKOA

10:00/14:00. Ekoizpen ekologikoaren inguruko show-cookinga, dastaketa eta jolasak. Untzagan.

LEGARREKO JAIK

12:00. Kalejira, txosnan hasita.

12:30. Pintxo-potea Tarten.

13:00. Legarreko IV. Kronoeskilara.

13:30. Pintxo-potea txosnan.

13:30. Graffiti erakustaldia.

14:25. Kronoeskilaren sari banaketa.

14:30. Herri-bazkaria.

16:00. Umeendako ikuskizuna, Antxo eta Pantxa pailazoekin.

17:00. Musika, DJ Arnorekin.

18:00. Txokolatada.

19:30. Kalejira.

20:00. Erromerixa: MP5.

22:30. Kontzertuak: Puro Txile eta A Tuti Plai. Legarren.

BIEN APARECIDA JAIK

14:00. Bazkaria.

16:30. Toka eta igel-toka. Kantabriako Etxekoek antolatuta. Ipuruako bolatokian.

MUSIKA ZUZENEAN


18:30. Sofia&Ander. Doan. El Corte Ingleseko terrazan (euria egitekotan 5. pisuko kafetegian).

Domeka 22**ASTE EKOLOGIKOA**

10:00/14:00. Eibarko Azoka Ekologikoa. Bertoko produktu ekologikoen dastaketa, jolasak, erakusketa, informazio postuak, atsedeen gunea, musika eta jai giroa, zozketak... Ekoizpen ekologikoaren inguruko show-cookinga, dastaketa eta jolasak. Untzagan.

ROLLERSKI IGOERA

10:00. XXI. Arratera Rollerski Igoera, Orbetik Arratera. Azitaingo industrialdean elkartzea. Modalitate klasikoa, bi distantzietan: 3.120 metro (2005a baino lehen jaiotakoak) eta 1.168 metro (2006tik aurrerakoak). Dortsalak 09:15ean banatuko dira. Kaskoa eta botaurrekoak beharrezkoak.

**Astelehena 23****ELKARRETARATZEA**

12:00. Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 24**BERBETAN**

17:00/18:30. Berbetan jaia. Umeentzat jolasak eta txokolatada. Urkin (Cepa parean).

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten literatur-tertulia, Miren Amurizaren "Basa" liburuaren inguruan. Portalean.

Eguaztena 25**BERBETAN**

17:00/18:30. Berbetan jaia. Umeentzat jolasak eta txokolatada. Urkin (Cepa parean).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entseua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 26**ANDREN IBILBIDEA**

09:45. Andren Ibilbidea. Udaletxeko arkupeetatik abiatuta.

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emaeentzat. Anbulatorioan.

Erakusketak**Irailaren 28ra arte:**

– **VIVIANE STRAUB-EN "BIDEAN" MARRAZKIAK** (Kokojaten)

Urriaren 6ra arte:

– **ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN LANAK** (Topaleku)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, BEÑAT Arrillaga, atzo 9 urte bete zenuazen-eta. Musu haundi bana, mutil haundi, etxekuen partez.



Zorionak, XABIER!!, hillaren 4an 2 urte egin zenuazen-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Josuren partez.



Zorionak, MALEN, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat, printzesa, famelixaren eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, IRATI, abuztuaren 30ian 9 urte egin zenuazen-eta. Besarkada haundi bat famelixa guztieren partez!



Zorionak, UNAX, atzo 12 urte egin zenuazelako. Etxeko danon partez gure txapeldunarentzako.



Zorionak, ALEX, hillaren 14an 9 urte bete zenuazen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, JONE, bixar 8 urte egingo dozuz-eta. Musu pilla bat etxekuen partez.



Zorionak, MAITANE!! 9 urte!! Musu potolo bat etxekuen eta, bereziki, MARKEL eta NAHIAren partez.



Zorionak, LUKEN, bixar 8 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat maitte zaittugun danon eta, batez be, arreba LIBEren partez.



Zorionak, JULE eta amama MARIBEL!! Datorren asteartian eta barixakuan urtiak betetzen dozuez!! Segi horrelako jator eta alai. Milla patxo famelixaren eta, batez be, Anderren partetik.



Zorionak, SUAR, 8 urte egiten dozuz-eta! Musu haundi bat eta ondo pasa. Pillua maite zaittugu! AIUR, Iraultz eta laguneren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
21ean: 19:45, 22:30
22an: 17:00, 20:00
23an: 20:30

"Quien a hierro mata"

Zuzendaria: Francisco Plaza



(2 ARETOAN)
21ean: 17:00, 19:45, 22:30
22an: 17:00, 20:00
23an: 20:30

"Anna"

Zuzendaria: Luc Besson



(ANTZOKIAN)
21ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
22an: 17:00^(1 aretoa), 20:00
23an: 20:30

"Ad Astra"

Zuzendaria: James Gray



(ANTZOKIAN)
21ean: 17:00
22an: 17:00

"Toy Story 4"

Zuzendaria: Josh Cooley



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-521840.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 681-013032. Carla.
- Etxe zoragarria alokagai Maria Cristina hotelaren parean Donostiako zinemaldiaren aste osorako. Baita bigarren hamabostaldiko ere. Tel. 689-232882.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Corsa 1400, 90 cv, Eco (GLP) salgai. 2017koa. 7.000 kilometrorra heldu gabe. 9.990 euro. Tel. 658-714437.
- Karabana finkoa salgai Mutrikun (Santa Elena kanpinaean). Komuna, dutxa, abanxe eta 2 oherekin (1'50 eta 0'90). 5.500 euro. Tel. 639-629346 eta 676-102578.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai Eibarren. Tel. 686-280395.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 603-651876.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Geriatria tituludun neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 638-908730.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-959575.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-890435.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauzez ere. Tel. 671-763558.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-197217.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-768803.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-010318.

- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak ospitalean zaintzeko. Tel. 617-896989.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-202358. Elvin.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-415374.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-303155.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-133720. Indira.

- Erizain-laguntzaile titulua duen mutila eskaintzen da lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 633-496455.

- Neska eskaintzen da soziedadek garbitzeko eta gauzez lan egiteko. Tel. 636-841158.

- Neska eskaintzen da arratsaldez etxeak garbitzeko eta obretako azken lanak egiteko. Tel. 638-421827.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauzez ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-487252.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 666-197831.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-850826.

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-201719.

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-537430.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-700803. Celia.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. 13 urteko esperientzia. Tel. 686-077564. Francisca.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-292690.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-714388.

- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez (16:00-18:00) umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arreta sozio-sanitario titularekin. Tel. 631-502177.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 15 urteko esperientzia. Tel. 667-060292. Sandra.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 664-819748 eta 638-249775. Humberto.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. 12:00etatik 17:00etara. Tel. 603-874953.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauzez ere. Tel. 631-980531.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-455854.

4.2. Langile bila

- Dekoraztailea behar da altzari-denda batean. Esperientziarekin. Tel. 649-781942.

- Kamarera/o behar da asteburuetan Eibarren lan egiteko. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net

- Astebururako kamarera/o eta garbitzailea behar dira jatetxe batean. Tel. 943-121262.

- Sukaldaria behar da taberna batean. Tel. 665-308025.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeniaritza ikasketak hasi dituen ikasleak irakaslea behar du. Tel. 636-523804.

5.2. Eskaintzak

- Euskera irakaslea behar da DBH 2. mailako ume batentzat eta 8 urteko beste batentzat. Astean bitan. Tel. 653-735874.

- DBH eta Batxilergo klaseak ematen dira. 4 lagunez osatutako taldeak gehienez. Tel. 685-739709.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Aulki elektriko tolesgarria salgai, litiozko bateriarekin. Garantiarekin. Ia erabili gabe. Tel. 616-234643.

- DBH 3ko Ekhi proiektuko iazko liburuak erosiko nituzke. Tel. 679-323452. Cristina.

- Batxilergoko 1. mailako liburuak salgai. D ereduak. Prezio onean. Tel. 605-711422.

- Gurgildun aulkia salgai, motorrarekin. Behin erabilitako euritarako zakua opari. Tel. 615-781238.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Oarso Car Arrasateko erakusketa berriaren INAUGURAZIOA

%40rainoko DESKONTUAK
Km 0 Hyundai Gama guztian



OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

ARRASATE
San Andres, 6 (Mugarri eraikina)
943 79 70 06

HYUNDAI



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

ABENDUKO DEIALDIA

COMPUTER BASED azterketak

MATRIKULA EPEA Urriaren 3ra arte

| EIBARREN | DATA | PREZIOA |
|-------------------------------|-----------------------|----------|
| FCE CB (PAPERS 1,2,3,4) | Urriak 19 (larunbata) | 192 euro |
| CAE CB (PAPERS 1,2,3,4) | Urriak 26 (larunbata) | 199 euro |

PAPER BASED azterketak

MATRIKULA EPEA Urriaren 18ra arte

| EIBARREN ETA DURANGON | DATA | PREZIOA |
|-----------------------------|-------------------------|----------|
| PET FS (PAPERS 1,2,3) | Abenduak 14 (larunbata) | 89 euro |
| FCE (PAPERS 1,2,3,4) | Abenduak 14 (larunbata) | 170 euro |
| CAE (PAPERS 1,2,3,4) | Abenduak 14 (larunbata) | 180 euro |

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK


| | | | | | |
|------------------|---------------------------|--------------|-----------------|------------------------|--------------|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 | DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | Idiomaster | 943 79 07 84 | | North Street English | 652 44 86 46 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 | MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| EIBAR: | Link Idiomas | 943 20 39 59 | MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| | Target Schools of English | 607 83 36 13 | | Lea Artibai Ikastetxea | 94 616 90 02 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 | ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| ELGOIBAR: | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 | BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| OÑATE: | Sounds Great | 943 78 20 91 | ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 | MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |



UGaN klub



- aerobic-step
- areto-ziklismoa
- areto-ziklismo interaktiboa
- aquaseniors
- estetika
- fitness
- GAP
- igeriketa kids
- igerilekua
- jumpfit
- kalean train
- karate kids
- kiopraktikoa
- kore & H.I.I.T.
- krosstrain
- pilates
- power
- running kedadak
- sabel dantza
- sauna
- seniors gimnasia +55
- total train
- TRX
- yoga
- zumba
- zumba kids



“Zuk nahi duzun ekintza,
zuk nahi duzunean”